

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Egitasmo disruptiboak

PELLO OTXANDIANO > 11

DEPRESIOA: «Arazoei eta ondoezari aurre egiteko tresnak eskaini behar zaizkie haurrei eta nerabeei» > 12

2019ko irailaren 21a | XIII. urtea • 638. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



PANDEROA, LETURIAREN TAUPADA

«TARRAPATAN, PANDERO BATEN IBILBIDEA» JASO DU XABIER BERASALUZEK, «LETURIA»-K, LIBURU BATEAN. ASTEBETEAN PANDEROA IKASTEKO METODOA ESKAINTZEAZ GAIN, «TAPA» ETA «PATA» KOLPEZ OSATUTAKO BIZITZA BATEN IBILERAK ERE JASO DITU. ASKOTARIKO MUSIKA TRESNAK JOTZEN DITUEN ARREN, «PANDERO XUME BATEK» AGINTZEN DUELAKO BERE TAUPADA. > 22 Maialen ANDRES | FOKU



**Indonesiarren arrazakeriaren
aurkako protestatik matxinada
independentistara Papuan** 04

Analisia: «Ezintasun» espainola 08

**Haurren depresioaren aurrean,
prebentzioa** 12

**Elkarrizketa: Xabier Berasaluze
«Leturia»** 22

**«Harria», sustraieratik ekarritako
doinu, dantza eta poesia berriak** 26

In fraganti: Iñaki Palacios 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:**
Erreferendumak

10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Bakardadea

11 **Pello Otxandiano:** Egitasmo
disruptiboak

16 **Antton Izagirre:** Irudimenezko
errealitateak

16 **Miren Azkarate Badiola:** Kijera
gazte(txe)a

17 **Amaia Ballesteros**

20 **Arantxa Urbe:** Ikasturte
berrirako gonbita

21 **Amaia Nausia Pimoulier:**
Gaurko inkisizioaren
«adiskidetuak»

30 **Edurne Larraza Mendiluze:**
Profil-argazkia



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Erreferendumak

Azaroaren 23an Bougainvillek independentzia erreferenduma egingo du, baldin eta oraingoan data mantentzea lortzen badute. Ekainerako zehaztu zuten hasieran, urrira atzeratu ostean eta azkenean azaroan kokatu. Papua Ginea Berriaren eta Bougainvilleren arteko bake akordioak 2020ko ekaina baino lehen independentzia aukera gisa jasoko zuen erreferendum bat egin behar zela zehazten zuen. Akordio beraren arabera, erreferendumaren emaitza ez da derrigor bete behar, eta, hala, azken erabakia Papua Ginea Berriaren esku egongo da. Bertie Ahern Irlandako lehen ministro ohia eta Aieteko Adierazpena irakurri zuen nazioarteko ordezkaria da Bougainvilleko Erreferendum Batzordeko lehendakaria. Batzorde horren esku dago erreferendumaren antolaketa. Galdera eta erantzunak ere erabakita daude: «Zer nahi duzu Bougainvillerako? A) Autonomia gehiago. B) Independentzia».

Independentzia bai ala ez bezalako galdera ekidin da; hala ere, baietzak irabazteko aukera handia da, eta, kasu horretan, nahiz eta azken erabakia Gobernu zentralaren esku egon, zailtasun handiak izango ditu emaitza ez errespetatzeko. Melanesian gauza asko oso arin aldatzen ari direla dirudi.

Kaledonia Berrian, esaterako, kanakek bigarren erreferenduma noiz egin zehaztu behar dute, Noumeako Bake Akordioan arabera hiru egiteko eskubidea daukate-eta. Teorian, bigarren 2020an egingo da, eta, bigarren hori ere unionismoak irabaztekotan, hirugarrena 2022an. 2018ko erreferendumean independentistek uste baino babes handiagoa lortu zuten, bozen %43,3, eta horrek 2020ko erreferendumerara begira esperantzak handitu zituen. Hala ere, denbora aurrera doa eta ez dago batere argi behar dituzten zazpi puntu horiek igotzeko gaitasuna izango duten edo ez. Melanesiar estatuen taldeak eragin handia dauka zonaldean eta haren babesa, orain arte erakutsi duenaren parekoa, erabakigarria izan daiteke.

Ozeano Baretik Europara gatoz bueltan eta gure kontinente zahar honetan gauza dezente gertatzera doazela

agerikoa da. Brexita lurrikara politiko, ekonomiko eta soziologikoa eragiten ari da, bai behintzat Erresuma Batuan. [Bide batez, HBOn dagoen “Years and Years” telesaila ikustea sutsuki gomendatzen dizuet, oso aurreikuspen ona egiten baitu datorkigun Erresuma Batuari, Europaren eta munduan gerta daitekeenaren inguruan].

Ipar Irlandan, inkesten arabera, batasunaren aldeko babesak gehiengoa eskuratu berri du, edo eskuratzekotan da. 40 urte baino gutxiagokoan artean babesa dezente altuagoa izanik, gainera, denbora kontu hutsa dela dirudi. Brexitak, gainera, denbora tarte hori azkartu egin dezake dudarik gabe. Eskozia ere antzeko bidetik doa. Bigarren erreferenduma noiz eta nola antolatu zehazten ari dira, Gobernu zentralarekin eztabaidan; adosten edo desadosten. Flandria beti geratzen da gure radarretik urruti, baina ezin ahaztu azken hauteskundeak N-VA al-

Espainiar Estatuak ez du erreferendumik adostuko eta konponbidea edo aurrera begirako pausoak hori kontuan hartuz erabaki eta adostu behar dira

derdi independentistak irabazi zituela berriz ere. Badago European ere nora begiratu, zer aztertu eta zer ikasi.

Katalunian udazken eta negu beroak datozela ematen du, sententziak independentismoa berriro elkartzea lor dezake, eta, edozein kasutan, zigorrak gogorak badira (eta espainiar Estatuak ez du normalean horrelakoetan huts egiten), erantzuna eta jendartearen haserrea tamainakoak izango dira. Aipatu ditugun gai-nontzeko kasu guztiekin alderatuta, diferentzia nagusia da espainiar Estatuak ez duela erreferendumik adostuko, eta, ondorioz, konponbidea edo aurrera begirako pausoak hori kontuan hartuz erabaki eta adostu behar direla. Gu kasu berean gaude: hobe dugu kataluniarrekin indarrak elkartzen jarraitu eta posible den heinean gure bideak adostea. Elkarrekin indar gehiago baitugu, baita aukera gehiago ere. •

PAPUAR «TXIMINOAK»

Indonesiarren arrazakeriaren aurkako protestak matxinada independentista bihurtu dira

Tximinoak, txakurrak!». Indonesiar talde batek hitzokin iraindu zituen Papuako unibertsitate ikasleak joan den abuztuan Surabayan, Indonesia-ko bigarren hiri populatuenean, Javako irlan.

Indonesiaren independentziaren egunean, pasa den abuztuaren 17an, Javako uhartean ikasten ari direnek Papuasia osoaren independentzia aldarrikatu zuten eta bakarren batek Indonesiako bandera bati su ere eman omen zion. Polizia indarrez sartu zen unibertsitateko erresidentzian gazte papuarrak atxilotzera eta jendetza hurbildu zen sarekada txalotzera, gazteak «tximinoak», «txakurrak» eta beste abere izen batzuekin irainduz. Papuarrek, Javako eta Sumatrako bizilagunekin alderatuta, azal ilunagoa eta ile kizkurragoa dute.

Atxilotutako 43 ikasleak aske utzi zituzten egun berean, baina atxiloketa uneko irudiak azkar batean zabaldu ziren papuarren artean sare sozialen bitartez. Ondorioa berehalakoa izan zen: Indonesiako Gobernuaren alde tik mespretxua baino jasotzen ez duten papuarrak sutan jarri ziren irudiok ikustean.

BERAIEN LURREAN «ARROTZAK»

Gertatutakoa ulertzeko, lehenik eta behin kontuan izan behar da papuarrak ez direla beraien lurraldearen jabe, Ginea Berria uharte handiaren mendebaldeko zatia Indonesiaren menpe baitago. Hala, ekialdeko erdiak Papua Ginea Berria izenarekin independentzia lortu bazuen ere 1975ean –Australiaren kolonia izan ostean–, Jakartaren agindupean jarraitzen dute beste bi eskualdek, Papuak eta

 **GINEA BERRIA** / Dabid LAZKANOITURBURU

Papuako 43 ikasle atxilotzeko orduan iraindu egin zituen Indonesiar talde batek Java uhartean. Papuarren aurkako arrazakeria agerian utzi zuen gertakariak haserrea piztu du Jakartaren menpe diren Papuan eta Mendebaldeko Papuan. Protestak matxinada independentista bihurtu dira. Papua Ginea Berria independentea dute eredu.




Mendebaldeko Papuak hain zuzen ere, biak ere Herbehereen menpeko kolonia izandakoak.

Protesten lehen egunetan, manifestariak ikasleen aurkako irainak bere egin zituzten, buelta emanez. Horrela bada, tximino mozerroak jantzi eta Papuasia osoaren independentziaren aldeko ikurrak altxatu zituzten manifestazioetan, Indonesian guztiz debekatuta dagoena. “Papuako Errepublikan ez gara tximinoak izango. Horrexegatik ez duzue gure askatasuna nahi”, zioen pankarta batek Mendebaldeko Papuako probintziako hiriburu Manokwarin protesten lehen egunean. Egun berean, probintziako Parlamentuari sua eman zioten manifestariak 130.000 biztanle dituen hirian. Dendak eta autoak kiskali zituzten, zirkulazio seinaleak lurrrera bota, eraikin ofizialak harrikatu... Matxinada, baina, ez zen Manokwarira mugatu.

Papua izeneko probintziaren hiriburuan ere, Jayapuran, Manokwariko berriek animatuta, milaka lagun elkartu ziren protesta egitera, guztiak ere motor gainean. Fakfak eta Sorong hirietan ere istiluak eta eraikuntza ofizialen aurkako erasoak izan ziren. Kartzela bati ere su eman zioten barnealdeko barruti batean; erasoan bertan zeuden 258 presok ihes egin zuten.

INTERNET MOZTUTA

Protestaldia isilarazi nahian, Indonesiako Gobernuak Internet moztu zuen papuarren lurraldean, «askok indarkeria elikatzeko erabiltzen dutelako», agentzia ofizialen arabera. «Arrazaren araberrako gorrotoa saihestea» omen da agintarien helburua. Giza eskubideen aldekoek diote Internet gabe ezingo direla segurtasun indarren gehiegikeriak behar bezala dokumentatu.



Aurreko orrialdean, papuar gazte bat protestetan. Lerroon gainean, indonesiar militarrek papuarrak atxilotzen.
AFP

Internet moztuta egoteaz aparte, herrialdera sartzea ere ia ezinezkoa da, beraz, oso zaila da bertan gertatzen ari denaren berri ematea. Jakina da, hori bai, Indonesiako Gobernuak 2.500 polizia bidali zituela bertara matxinadaren lehen egunetan. Guztira 6.000 militar eta polizia daude Papuan.

GAINERA, PARAMILITARRAK

Saul Paulo Wanimbo abade katóliko papuarrak, Timika hirian bizi dena, azken asteotan paramilitarrak ere iritsi direla salatu du. «Militarren eta Poliziaren babesa dute 'Nusantarako Erakundea' izena erabiltzen duten miliziek», azaldu du. «Papuan egoera normalduta dagoela dio Segurtasun Ministerioak. Egoera normala bada, nolatan hainbeste tropa toki guztietan?», salatu du abadeak.

Jakartako Gobernuak emandako datuen arabera, bost «bakarrik» dira abuztuaren 19tik hona hildako manifestariak. Soldadu bat ere zendu omen da liskarretan eta hamabost zibil eta bi polizia omen daude zauritutakoen artean. Iturri horren arabera 85 dira atxilotutakoak. Papuatik bertatik hainbat ekintzailek salatu dutenez, baina, benetako kopuruak askozaz handiagoak dira.

Papuarrek, jatorriz melanesiarrak izanik, Javako eta Sumatrako biztanleekin alderatuta azal ilunagoa eta ile kizkurragoa dute. Gainera, gehienak kristauak dira eta ez musulmanak

«Papuako Errepublikan ez gara ez tximinoak ezta txakurrak ere izango. Horrexegatik ez duzue gure askatasuna nahi», aldarrikatu dute herritarrek egunotako protestetan

Bertako lekukoek eta iturriek sei hildakoren berri eman zuten abuztuko liskarretan Deiyaiko barruti bakartuan bakarrik. Iturri ofizialek hiru hildako-tartean soldadua zenbatu zituzten eta Poliziak matxeteak eta geziak erabiltzen zituzten ehunka papuarren erasoari aurre egin behar izan ziola justifikatu zuten.

Dozenaka papuarrek etxetik ihes egin behar izan dute, tartean

Veronica Koman giza eskubideen aldeko abokatuak. Berari esker lortu zuten Jakartak ezarritako zulo informatiboa gainditzea ekintzaileek lehen egunetan.

«Gertatzen ari dena oso larria da. Ekialdeko Timor berria dugu honakoa», ohartarazi du Benny Wenda agintari independentistak. «Ez dugu nahi sarraski baten zain egoterik munduak zer edo zer egin dezan», gaineratu du Londresetik.

Gogoratu behar denez, Ekialdeko Timorrek independentzia erreferendumaren 20. urteurrena gogoratu zuen abuztuaren 30ean. Portugaldarren kolonia Indonesiak okupatu zuen 1975ean eta errepresioak herritarren laurdenak desagerrarazi zituen hurrengo 24 urteetan. 1999an, hautesleen %80ren aldeko boza jaso zuen autodeter-

minazio erreferendumaren ostean, izugarrizko sarraskia eragin zuten Indonesiako paramilitarrek mendeku gisa. Milaka izan ziren 1999ko abuztuaren 30ko gau hartan hasitako sarraskiaren ondorioz hildakoak eta Ekialdeko Timorrek, egun 1.300.000 biztanle dituen herriak, gehienak katolikoak, 2002ra arte itxaron behar izan zuen independentzia lortzeko.

Benny Wenda Mendebaldeko Papuaren independentziarako mugimenduko buruzagia dugu. Deserrian bizi da Britainia Handian 2002an kartzelatik ihes egin zuenetik. Poliziaren kuartel baten aurkako erasoan parte hartu izanaren akusaziopean kondenatu zuten.

INDEPENDENTZIA GRINA

Papuak matxinada independentista armatua ezagutu du azken hamarkadotan. Intentsitate urrikoa izan da orain artean, baina iaztik gora egin du indarkeriak. Iazko abenduan harrobi publiko baten lan egiten zuten hamasei indonesiarren hilketa aldarrikatu zuten independentistek. Uztailean, berriz, bi soldadu hil ziren independentistekin izandako liskar batean.

Wendak independentzia erreferenduma aldarrikatu du. «Badakigu ez dugula sekula Indonesiako Armadaren aurkako guda irabaziko. Horregatik, gure armak baketsuak dira: erreferendum bat egitea baino ez dugu exijitzen», aldarrikatu du. «Herriak auziaren muina aztertzea besterik ez du nahi, baina Indonesiako Gobernuak ez du inolaz ere hori nahi. Eta bere indar paramilitarrak bidaltzen dizkigu, Ekialdeko Timorren egin zuen moduan. Nazio Batuetako Erakundeak esku hartu beharra du, odol isuri izugarri baten atarian egon gaitezkeelako».



Ginea Berriko ekialdea Australiaren menpe egon zen eta 1975ean independentzia lortu zuen. Ordutik Papua Ginea Berria izenarekin ezaguna da eta bere bandera Nazio Batuen Erakundearen egoitzan, New Yorken, altxatzen da, Ekialdeko Timorrekoarekin batera.

Ginea Berriko mendebaldea, oster, Herbehereen menpe egon zen. 1962an alde egin zuten herbeheretarrek eta Indonesiaren menpe utzi zuen herrialdea, bere baliabide natural izugarrie-

kin eta haran tropikalekin. Jakarta Armada bidali zuen 1963an herrialdea okupatzera. Nazio Batuen Erakundeak baldintza bat ezarri zion anexioari; erreferendum bat egitea, hain zuzen ere.

Suharto diktadorearen agindupean egin zen azkenean erreferenduma, 1969an. Mila tribu agintari inguruk baino ez zuten bozkatzeko aukera izan eta, gainera, mehatxupean egin zuten. Nola ez, Indonesiaren barnean jarraitzeko aukera gailendu zen. Gaur egungo Indonesiak, noski,

Goian, Widodo Indonesiako presidentek papuar agintari tribalei egindako harrera. Ondoan, Benny Wenda agintari independentista. Azken irudian, 1962ra arte indar kolonial izandako Herbehereetan egindako protesta ekitaldia. JAVIER OLAIZOLA

auzia konpondutzat jotzen du sasi-erreferendum haren ostean eta ez du inolaz ere beste kontsulta bat egiterik nahi. Gainera, Benni Wenda jotzen du egungo istiluen erantzule nagusitzat.


MELANESIARRAK ETA KRISTAUAK

Papuasiako herritarrak jatorriz melanesiarrak dira, eta, gehienak, kristauak dira. Papuarren kultura tribala guztiz desberdina da indonesiarrenarekin alderatuta. Gainera, indonesiarren %90 musulmanak dira.

Lurralde oso aberatsa izanagatik, Indonesiaren menpeko Papua herrialdeko eskualde pobreenetarikoa da. Aisah Putri Budiatri Indonesiako Zientzia Institutuko ikertzaileak argi du protestak zer elikatu dituen: «hamarkada luzeko auzi politikoak, giza eskubideen bortxaketek eta Papuaren eta gainerako irlen arteko berdintasun faltak». Budiatri “Papua Road Map” lanaren egileetariko bat du-

Ginea Berriko ekialdeak, Australiaren menpe egon zena, independentzia lortu zuen 1975ean, Papua Ginea Berria izenarekin. Mendebaldea, Herbehereen kolonia, Indonesiak okupatu zuen

Meategiak, petrolioa eta baso ugari izanagatik, Indonesiako eskualderik pobreenetarikoa da Ginea Berriko mendebaldea. Aberastasun naturalak kanpotarrek eskuratu dituzte




gu eta Papuako auzia konponbi-dean jartzeko bide bakarra elkar-irizketa dela dio, ez bertara tropa gehiago bidaltzea. Are gehiago, «onartezina» deritzo kanpokoek bertako ekonomia kontrolatzea. Horrela ulertzen da nola den po-sible meategiak, petrolioia eta ba-soak barra-barra dituen herrialde batek txirotasunean jarraitzea.

2015ean Indonesiako presiden-teak, Joko Widodok, bertan be-hera utzi zuen Javatik eta Sumatratik Papuasiara kolo-noak bidaltzeko programa, irlok jendez gainezka daude-la aitzakia hartuta. Hala ere, kolonizazioak berean jarrai-tzen du eta jada Mendebal-deko Papuako eta Papuako herritarren ia erdiak (guztira 3,5 milioi biztanle dira) kan-potik iritsitakoak dira.

Widodok berak kazetariei eta analistei Papuara joateko exiji-tzen zitzaien baimen berezia ere bertan behera utziko zuela

Papuasiaren auzia



a g i n d u
zuen. Lau
urteren buel-
tan ez du agindu-
takoa bete.

«Javako ekialdean arrazakeria-
ren aurkako protesta gisa hasi ze-
na independentzia aldarrikapen

bilakatu da», ohartarazi du Adria-
na Elizabethhek, Indonesiako Zien-
tzia Institutuan Papuasiari bu-
ruzko adituak. Hala ere, bere
iritziz, «Papuasian fakzio asko
daude eta ez dira ados jartzen». Ez dira ados jartzen edo Jakartak
erabiltzen ditu fakzioak zatiketa

ziurtatzeko, garai bateko koloni-
zatzailen irakaspena jarraituz. Widodok Papuasiako tribu agin-tariak hartu berri ditu eta mila papuar ikasleri lan publikoa emango dizkiela agindu du. Gai-nera, Papuan beste jauregi presi-denzial bat eraikitzeko asmoa agertu du. Indonesian sei jauregi presidentzial daude, horietako bat Bali uharte turistikoan.

Jakartan den Auzien Analisi-rako Institutuko zuzendari Sid-ney Jonesen ustez, «Gobernuak uste izan du errepideak eraiki eta sos batzuk emanez auzia be-rez konponduko zela. Beste auzi guztiak, baina, biolentzia, Segur-tasun Indarren gehiegikeria, in-punitatea...ahazturan utzi ditu».

Papuarrek, ordea, ez dituzte ahaztu Indonesiako segurtasun indarrek herritarren aurka egin-dako sarraskiak. Papuarren aurka. «Tximino» edo «txakurren» aurka, Surabayan indonesiarrek dioten bezala.

{ analisis } **Dabid LAZKANOITURBURU**

«Ezintasun» espainola

Amaitu da apirilaren 28ko hauteskundeetan hasi zen telesaila, baina hurrengo hastear da jada. Izan ere, bost hilabeteren bueltan, azaroaren 10erako hauteskundeak iragarri dituzte, 2015etik laugarrenak, iazko gobernu aldaketa albo batera utzita. Harridura eta haserrea dira nagusi, edo harridura nagusi izatea erabaki dute elikatzen gaituzten hainbat komunikabide eta “tertulistok”.

Politikarien arduragabekeria agerian geratu omen da, euren lana akordioetara heltzea baita antza. Edozein akordiotara iristea ahal da politikarien lana? Ez dut uste eta nik neuk behintzat ez nuke horrelakorik nahi. Horretan datza «lotsa» eta «arduragabekeria» ahotan darabiltzaten askoren lehen gehiegikeria. Akordio zehatz baten, eta ez edozein akordioaren, alde zeudelako kexu diren batzuk, PSOEren eta Unidas Podemosen arteko akordioa, hain zuzen ere.

Zilegi bai, baina...

Zilegi da aipatu akordioa nahi izatea, dudarik gabe. Ni ere uztaileko negoziaketen porrotaren ondoren irailean Pablo Iglesiasek eta Irene Monterok gidatzen duten mugimenduak amore emango zuelakoan nengoen, gobernu koalizioa lortzen ez bazuten ere, azken unean Pedro Sanchez presi-

Berriro hauteskundeak deitzeak politika espainolaren «arduragabekeria» eta «ezintasuna» agerian utzi dituen mezua nagusitu da. Auzia sakonagoa da eta Estatuaren krisi existentziala eta ezkerren kainismoa ditu oinarri besteak beste

denteari babesa emango ziotelakoan. Oker nengoen –beste behin ere–, baina ez naiz bakarra. Hori bai, askok uste genuen Podemosentzat hiru ministerio “txiki” eskuratu baino interesgarriagoa zela Parlamentuan PSOE estu lotzea.

Kontuak kontu, azkenean uztailean onartu ez zuen akordioa ontzat emateko prest ere agertu da irailean Iglesias, eman ez den negoziaketa batean baina. Kalkulu okerra egin du. Sanchezek koalizio gobernu bat hitzartzeko garaia iragana dela esan eta berean jarraitu du. Bejondeiela batari eta besteari!

Nork daki zer gertatuko zen, Portugalen bezala, Unidas Podemosek Legebiltzarrerako akordio baten alde egin izan

balu. Izan ere, Iberiar penintsularen ekialdeko herrialdean, Alderdi Sozialistak (PS) du gobernua eta Alderdi Komunistak (PCP) eta Bloco ezkerreko alderdiak Parlamentuan babesa ematen diote. Inkesten arabera, egoera horrek batez ere Antonio Costa lehen ministro sozialistari egingo dio mesede aurki izango diren hauteskundeei begira. Hori bai, Gobernuak zenbait murrizketa sozialen aurka egin duen heinean, Portugalgo herritar arruntak ere irabazten atera direla esan daiteke. Eta hori ere ez da gutxi.

Hipotesiak hipotesi, baina, beste galdera bat geratzen da airean: «Onartuko al luke Sanchez presidente espainolak baldintza horietan karguan ja-

rraitzea Podemosek amore eman izan balu?». Iglesiasek behintzat ez du nahi izan. 2011ko “haserretuen” mugimendutik jaio eta 2015ean eta 2016an PSOEri *sorpasso*-a emango ziola amestu zuen Podemos ahultzen ari da eta, koalizioa eratu zutenetik gertzen den buruzagi bakarrak, Iglesiasek, bera ezean bereak gobernuan sartzea behar-beharrezkoa zuen. Are gehiago kontuan hartuta Iñigo Errejon Podemoseko buruzagi ohiak Manuela Carmena Madrilgo alkate ohiarekin eratu duen Mas Madrid plataforma Estatu espainiarreko hiriburuan sendotu egin dela, Podemos beraren kalterako. Sendotu egin da eta, gainera, iturri batzuen arabera, Madriletik at hedatzeko asmoa ere badu.

Ezkerren patua

Egoera hori baliatuta, Pedro Sanchez PSOEko agintariak sekula ez duela Podemosekin akordioetara iritsi nahi izan diote askok. Baina apirilaren 28ko emaitzek –Sanchezek emaitza hobeak espero zituen baina Iglesiasek eutsi egin zion telebistako eztabaidetan burua altxatu ostean– eta eskuinaren mehatxuaren aurka egindako kanpainak nolabait behartu zuten presidentea ezkerreko alderdien arteko akordioa defendatzera.

Jarraian, maiatzaren 26ko hauteskundeetan (lokalak, autonomikoak eta europarrak),

Unidas Podemosek emaitza kaskarrak izan zituen eta horrek Sanchez zentzora hurbiltzera bultzatu zuen. Bestalde, egia da ere ezkerrearen patu existentziala indar ezberdinen artean akordiorik ez lortzea dela, izen eta esentzien borrokan amiltzen delako beti, zein den ezkertiarago erabaki nahian. Egia da, halaber, espazio politiko bera eskuratzeko lehiakideak diren alderdiek ez dutela gobernu akordio bat bera ere Europa osoan.

«Borgen» telesaila

Ildo horretan, askotan aipatu izan da hilabeteotan “Borgen” telesaila, Danimarkan gobernu koalizio bat osatzeko negoziaketak ardatz dituen fikzioa, Espainiak arlo horretan omen dituen gabeziak azpimarratzeko. Danimarka ez da Espainia, baina bada beste zerbait ere: bikin goen herrian aspalditik bizi den alderdi aniztasunak ez du zerikusirik Ebrotik behera nagusi izan den bipartidismoarekin, are gutxiago apirileko hauteskundeetan nagusitu zen frentismoarekin (ezkerra faxisten aurka batzuentzat, konstituzionalistak “Espainia Handia” desegiteko prest daudenen aurka besteentzat).

Arlo batean, ordea, baliogarri izan daiteke konparaketa. Izan ere, bozen osteko negoziaketen porrota krisi sako-



Pedro Sanchez presidente espainola, aste honetan Madrilgo Kongresuan.
PIERRE-PHILIPPE MARCOU | AFP

nago baten baitan kokatzen dute batzuek, bipartidismoaren krisian hain zuzen. Horien ustez, alderdi nagusiek, PSOE tartean, ez dute onartu egoera politikoa zeharo aldatu dela eta atzera egin nahiko lukete, nola edo hala. Horrek azalduko luke Sanchezen noraeza azken hilabeteotan. Noraeza edo agian ustezko noraezaren azpian ezkututzen den plangintza kalkulatu oso bat: Ivan Redondo donostiarraren aholku demoskopikoek lagunduta, PSOEren asmoa bipartidismoa berpiztea litzateke, Podemos eta Ciudadanos satelite huts bihurtuz.

Ezkerreko botoen gehien goa ziurtatuta duelakoan, «zentroa» eta «moderazioa» aldarrikatzeari ekin dio presidente espainolak azken egunotan. Albert Rivera Ciudadana-

noseko buruak eskuinera egin duen bidaia baliatu nahi du azaroaren 10ean emaitza hobeak lortu eta bere posizioa indartzeko legealdi berri baten atarian (PPren abstentzio arduratsua behartzeko adina).

Riverak aste honetan bertan luzatu dion proposamena –Nafarroako gobernua bertan behera uztea, Katalunian 155a nola ezarri adostea eta zergak ez igotzea–, Ciudadanoseko buruzagiaren urduritasunaren seinale litzateke. Izan ere, Katalunian unionismoa defendatzeko sortu zen eta PPri *sorpasso*-a emango ziola amestu zuen alderdia helburu horretatik oso urruti geratu zen azken hauteskundeetan. Ametsa bete ez eta inkestetan beherrako joera du, gainera, barne

krisi bete-betean den alderdiak. Azken batean, PSOEk Ciudadanos behin eta berriz Sanchezek presidente gisa jarraitzeko abstentitzeko egingako eskaera tranpa hutsa baino ez da izan. Tranpa eta datozen hauteskunde osteko gonbita, Riverari edo agian bere oinordekoari.

Katalunia

Dudarik gabe, eta asteen bertan Arnaldo Otegi azaldu duen moduan, Kataluniaren auzia dago Sanchezen erabakiaren atzetik. Podemosek baino gehiago kezkatzen zuen ERCren eta Bilduren menpe hastea legegintzaldia. Kataluniako auziak zerikusi handia izan du gertatutako guztian eta auzi berak gidatuko ditu, seguruenik, datozen hauteskunde osteko negoziaketak ere. Are gehiago *procés*-aren sententzia hauteskunde kanpaina bertan kaleratuko dela kontuan hartuta.

Sanchezek hautua egin eta arriskuak hartzea erabaki du. Abstentzioak, errelatoaren lehian irabazlea zein den (nor izan da hauteskundeak deitzearen erantzulea?) eta egoera ekonomikoak (krisi zantzuak datoz Alemaniatik) zerikusia izango dute emaitzetan. Arduragabekeria politikoa ez delako hasten eta agortzen hauteskunde deialdi batean. Askoz urrunago doa, baita geografikoki ere.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Bakardadea

Bakardadeari beldurra al diozu? Gizakiak sozialak gara izatez, lagunduta sentitzea eta norbaiti axola diogula sentitzea gustatzen zaigu eta oinarritzakoa da gure zoriontasunean. Harpeen arotik ikasi genuen talde sozial batean onartua izatea, bertan elkar lagunduz eta guztion artean mehatxuei aurre eginez bizitzea askoz errazagoa zela. Izan ere, bakarrik egonez, bizirik ez ateratzeko aukera asko genituen.

Hala ere, hazi ahal izateko eta psikologikoki heltzeko, bakarrik egoten ikastea ere oso beharrezkoa da. Egia esan, bakarrik egoten jakitea zure konpainiarik onena zu zeu zarela konturatzea da eta, horri esker, zure izatearekin konektatzea, zure aukezez fidatzea eta bizitzatik bakarrik ibiltzeko gai zarela nabaritzea.

Bakardadeak, gure buruarekin berri- ez elkartzeko ahalbidetzen digu.

Beste pertsona batzuekin harremanetan eguneko ordu guztiak pasatzen ditugunean, era fisiko zein birtualean, etengabe kanpoko pentsamendu, iritzi eta itxaropenekin gaude kontaktuan. Hori ez da negatiboa, gizakia izaki soziala da eta, horregatik, ingurunean bertakotzea beharrezkoa du. Baina horrek ez du esan nahi gure buruarekin egoteko momentuak alde batera utzi behar ditugunik. Bakardade uneek, inguratzen gaituen giro sozialaren inguruan hausnartzeko aukera eskaintzen digute.


Denbora gehiena beste norbaitekin ematen dugunean, askotan, plan batetik beste batera pasatzen gara, egia esan, asko pentsatu gabe. Zirkunstantziaren batengatik, planik gabe gertatzen bagara, agian gaizki sentituko gara, jada bakarrik gaudenean ondo

pasatzea ahaztu zaigulako. Hortaz, uneak noizean behin bakarrik guretzat izateak, gure gustuko aisialdi erak esploratzea ahalbidetzen digu. Guri bakarrik gustatzen zaizkigun filmak edo telesailak ikus ditzakegu, irakurri eta paseatu, bainu lasaigarri bat hartu; egia esan, zain ditugun planen kopurua infinitua da. Gure buruarekin aisialdi denbora pasatzea, autozaintzea da; gainera, jarduera horietan, besteekin partekatze-ko ideiak ere aurki ditzakegu.

Bakardadean, gure bizitzaren, bali- oien eta proiektuen, gure bertute- en eta akatsen gainean hausnar dezakegu.

Bakardadearen espazioa, introspektzioarako espazioa da, gudan eta gure erlazioetan pentsatzeko eta hobetzeko modua bilatzeko. Hausnartzeko unerik gabe, ezin izango genuke inoiz jakin non gauden eta nora joan nahi dugun. Gainera, gatazka giza erlazioetako ezinbesteko parte denez gero, bizitza soziala gatazkaz beteta dago. Garrantzitsua da gainerakoekin hitz egitea besteen ikuspuntuak ezagutzeko eta gure berezko pentsamenduetan ez galtzeko. Baina garrantzitsua da ere, gogoeta-uneak bakardadean igarotzea, gatazken aurrean nola jokatu dugun eta haiek nola ebatziko ditugun zintzotasunez pentsatu ahal izateko.

Gehiegizko bakardadeak isolatu egin gaitzake, eta sentimendu depresiboak ere eragin ditzake. Bakarrik egoten ez jakiteak, ordea, benetan nortzuk garen ahaztea ere eragin dezake, gure beharrak eta zaintza bazterrean utziz. Gure buruarekin konpainia onean egotea, gure ongizatearen euskarria da. •



Bakarrik egoten ikastea oso beharrezkoa da.

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Egitasmo disruptiboak

Hau ere hauteskunder jositako urte politikoa izango da Euskal Herrian. Iparraldean herriko etxeetakoak; Erkidegoan, probabilitate handiz, autonomikoak; eta, aste honetan jakin dugunez, Hegoaldean estatalak. Azkenik, amaitze dago udako kulebroia: gobernu-koalizioa izango ote zen, akordio programatikoa bidea segituko ote zen, PSOEk dohainik gobernatuko ote zuen ala hauteskunde berri batzuen aukera nagusituko ote zen. Gira eta buelta askoren ondoren hauteskundeak iragarri ditu Sanchezek eta kanpaina elektorala hasita dago.

Badirudi PSOEk hartua zuela hauteskundeetara jotzeko erabakia gutxienik Podemosek gobernu koalizioari ezetz esan zionetik. Alde ditu inkestak, nahiz eta zaila den jakitea hautesleriaren nekeak nola eragingo duen. Baliteke jokaldi taktikoa ondo ateratzea: Podemos eta Ciudadanos ahuldu eta PP zerbait indartzea. Ondorioz, egonkortasun politiko handiagoko egoera batean, bere erdiguneko posizioa indartu dezake. Baliteke. Baina, joko taktikoen gainetik –edo azpitik–, bilakaera horrek Estatuak krisiari aurre egiteko saiatuko duen diseinua adieraz dezake.

Edo ez, batek daki. Ezer ezin baitaiteke ziurtzat eman garai kaotikootan. Edo nola ere, bada kontuan hartzeko hipotesia. Krisi politikoa Europan, ekonomiaren hoztea eta Kataluniaren berotzea: arrisku faktore gehiegi egiturazko krisian dagoen estatu batentzat. Badirudi soluzio autoritarioa saiatuko duela PSOEk: lurralde auzian ezein irekidura aukera alboratu eta estatuaren defendatzaile agertu: kanpo eta barne mehatxuen aurrean batasuna eta nazioarekiko leialtasuna. Horrek Podemosen eta, batez ere, independentisten menpeko ez den gobernu bat eskatzen du, estatu-auzi nagusietan –eta ez dira gutxi– eskuinarekin bat egingo duena. Baliteke.

Hipotesi horrek agertoki arriskutsua irekitzen du ez bairik gabe. Egia bada datozen 5-10 urteetan estatu-proiektua bera seriooki auzitan jarriko duten egoera

sozial konbultsoak gertatuko direla, Espainiari hautu bakarra gelditzen zaio: inboluzio autoritarioa. Agertoki horretan, fronte demokratiko-soberanista baten hautu estrategikoa balioesten da, Espainiaren inboluzio demokratikoari, eta ondoriozko birzentralizazioari, aurre egin diezaiokeen aukera bakarra katalanen eta euskaldunen arteko aliantza bat baita, Estatuari itxikeria garestiago atera dakion irekidura baino.

Agertoki horrek, arriskutsua izanagatik ere, aukera berriak ireki ditzake. Euskal Herriko dinamika politikoa zuzendu duten oreka batzuk ere hankaz gora jar ditzakeelako eta inertziekin hausteko premia larriagotu daitekeelako. Aldaketa-aroetan egoerei aurre hartzea gakoa da. Inpresioa dut azken urteetan atzetik joan garela, errealitate sozial eta politikoa moldatu duten gertaerek –2008ko krisi ekonomiko-finantzarioa edota Kataluniako eztanda independentista kasu–

Inertziak hautsi, bide berriak urratu behar ditugu. Aldaketa handiak datoz eta dakiguna egiten jarraitzeak ez du deus balio. Aldaketek ekinean harrapa gaitzatela

harrapatu egin gaituztela, itolarrian ibili garela geure lekua aurkitu ezinik.

Inork ez daki zer gerta litekeen datozen urteetan Europan, Katalunian edota Espainian. Epe ertaineko planak egiteak ez du piperrik balio etorkizuna anabasa kaotiko bat begitantzen denean. Planak baino prozesu berritzaileak behar ditugu, disruptiboak izango diren egitasmo sozial, kultural eta politikoak. Saiakerak egin, porroterako beldurrik gabe. Inertziak hautsi, bide berriak urratu. Elkarlanerako espazio berriak eraiki. Aldaketa handiak datoz eta dakiguna egiten jarraitzeak ez du deus balio. Aldaketek ekinean harrapa gaitzatela. Agian, irekiko diren aukera-leihoetakoren bat probesten asmatuko baitugu.

Gorka Urbizuk esana: «Bihar ensaio!». •

NAHASMENDU EMOZIONALAK

Haurren depresioaren aurrean, prebentzioa

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Depresioak ez dauka ez adinik ez maila sozialik. Egun, munduan, 300 milioi pertsona baino gehiago dago deprimituta, tartean haurrak eta nerabeak. Haurren depresioa detektatzeko eta prebenitzeko programa espezifiko bat landu dute EHuko hiru ikerlarik, garaiz eta serio hartu beharreko arazoa delakoan.

Depresioa da mundu mailan desgaitasun eta gaitasun kasu gehien sortzen duen arazoa. Egun munduan 300 milioi pertsonak baino gehiagok dauka depresioa. Osasun publikoko arazo larria da eta, ondorioz, Osasunaren Mundu Erakundearen

2013-2020 Osasun Mentalaren Planean erronka garrantzitsuenetakoa. Depresioak adin eta maila sozial guztiei eragiten die eta haurren depresioa ere betidanik existitu izan da, nahiz eta akaso azken urteotan arreta handiagoz ikertu. Ikerketa askok ohartarazi dute adin goiztiarretan ematen den depresioaren inguruan. Depre-

sio larria detektatzeko txostenak erabiltzen dituzten eskola zentroetako datuak argigarriak dira: Estatu espainoleko haurren %4k depresio larria dauka; Finlandian, %6koa da datua; Grezian, %8koa; Australian %10era igotzen da, eta, Kolonbian, %25era. Maite Garaigordobilek, Joana Jaureguizarrek eta Elena Bernarasek –hirurak EHuko

Emozioak eta pentsamendu negatiboak identifikatu, ulertu eta erregulatzeak tresnak eskaini behar zaizkio haurrari. GAUR8

irakasleak eta ikertzaileak denbora luzea daramate haurren depresioa ebaluatzen eta aztertzen. Garbi daukate zein den bidea: haurren eta nerabeen nahasmendu emozionalak prebenitzeko programak garatu eta ezarri behar dira eskoletan. Hartara, Pozik Bizi izeneko programa espezifikoa garatu dute. 8 eta 10 urte bitarteko haurren artean emozioak eta depresio sintomak hobetzeko programa bat da, ikuspegi kognitibo-konduktual batean oinarritzen da eta hiru helburu ditu: talde barruko harremanak hobetzea eta estres soziala murriztea; emozioak eta pentsamendu negatiboak identifikatu, ulertu eta erregulatzea eta positiboak indartzea; eta ikasleek beren antsietatea eta ezintasun sentimenduak murrizteko duten gaitasuna hobetuz haien konfiantza areagotzea.

Pozik Bizi programak ordubeteko iraupena duten hemezortzi saio edo esku hartze aurreikusten ditu. Horietan, norbanako hausnarketak eta taldekoak bultzatzen dira, antzezlanak egiten dira, istorioak asmatu, irakaspena daukaten errelatoak landu... Finean, haurrei pentsamendu baikorrak eta ezkorrak identifikatzen ikasteko tresnak eskaintzen zaizkie, horien ondorioei buruz hausnartzen laguntzen zaie eta erlaxazio ariketak ere lantzen dira.

BI PROGRAMA KONPARATU

Pozik Bizi programaren eraginkortasuna neurtzeko, Jolasa programa globalarekin konparatu dute ikertzaileek. Jolasa programak hamarkada bat baino gehiago darama martxan eta 8 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Bere helburua garapen soziala eta



afektibo-emozionala sustatzea da. Horretarako jolas kooperatiboa erabiltzen du. Finean, komunikatzeko, laguntzeko, lankidetzan aritzeko, taldea batzeko eta konfiantza izateko jolasak bultzatzen ditu programa horrek.

Pozik Bizi programa, beraz, depresioari begira landutako programa zehatza da eta globalagoa den Jolasa programarekin konparatu da. Horretarako, Lehen Hezkuntzako 420 ikasle aukeratu dira, 7 eta 10 urte artekoak. Horietatik %51,9 ausaz esleitu dira depresioaren programa espezifikorako (Pozik Bizi) eta %48,1 kontrolleko programarako (Jolasa). Parte hartzaileak 2015-2016 ikasturtean Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleak izan ziren, %53,6 eskola publikoetakoak eta %46,4 pribatuetaoak.

PREBENTZIOAREN GARRANTZIA

Ikerketaren emaitzek –“The Journal of Psychology Interdisciplinary and Applied” aldizkari zientifikoa argitaratuak– prebentzioaren garrantzia nabarmendu dute. Pozik Bizi programan parte hartu zuten haurren kasuan, nabarmen hobetu ziren arazo emozionalak eta jokabidezkoak –herabetasuna, somatizazioa, antsietatea, pentsamendu arazoak, depresioa...–, ikastetxearekiko eta eskolarekiko jarrera negatiboak murriztu egin ziren eta depresioa inhibitzen duten jokabide positiboak nabarmendu egin ziren, animoa eta poza kasu.

Jolasa programan parte hartu zutenen kasuan, norbere buruaren irudia eta gizarte trebetasunak nabarmen hobetu ziren; komunikazioa, lankidetzan aritzea, asertibitatea, ardura, enpatia, autokontrola

Pozik Bizi 8-10 urte bitarteko haurren artean emozioak eta depresio sintomak hobetzeko programa bat da. Pentsamendu negatiboak identifikatzen eta kudeatzen laguntzen die

Osasunaren Mundu Erakundeak, depresioak gora egin duela ikusita, bere erronken artean kokatu du horri aurre egitea. Eskoletan prebentzio programak bultzatzea aholkatzen du

eta parte hartzea, adibidez. Beraz, Jolasa programaren emaitzak ere nabarmentzekoak dira.

Ikerlarien esanetan, «lortutako datuak ikusita, adin goiztiarrak ardatz dituzten depresioaren sintomatologia prebenitzeko programa unibertsal gutxi daudela kontuan hartuta, nabarmentzekoa da lan honek haurren depresioa prebenitzeko programa unibertsal bat eskaintzen duela, aldagai klinikoak murrizteko eraginkortasun frogatua duen programa bat. Gainera, esku hartze sozioemozionaleko programek –adibidez, jolas kooperatibokoek– depresiotik babesten duten zenbait faktore –norbere buruaren irudia eta trebetasun sozialak– hobetzeko potentzial positiboa dutela berresten du azterlan honek. Lan garrantzitsua da, izan ere, haurtzaroan prebentzio eta esku hartze ona izanez gero, nerabeak eta helduak osasuntsuago egotea eragin daiteke. Horregatik, haurtzaroan eta nerabezaroan nahasmentu emozionalak prebenitzeko programak garatu eta ezarri beharra dagoela azpimarratu behar da».

Osasunaren Mundu Erakundearen estrategiak ere bide horretatik doaz. Azken urteotan depresioak gora egin duela-eta, prebentzio programen garrantzia nabarmendu du.

Hartara, komunitate mailako estrategietan oso egokiak eta eraginkorrak ikusten ditu eskola programak. «Haurren depresioa prebenitzeko programa unibertsalak eskola mailan ematen dira eta haur guztiei zuzenduta daude. Horien erronka nagusiak osasun mentala sustatzea eta erresilientzia garatzea dira», nabarmentzen du. Bidea, beraz, markatuta dago.

EZ DA DIAGNOSTIKO ERRAZA, BAINA BADIRA SEINALEAK

Haurtzaroan gertatzen diren emozioen korapiloak erronka garrantzitsua eta kezka larria dira hezitzaileentzat, osasungintzako profesionalentzat eta gurasoentzat. Haurretan ematen diren nahasmendu psikopatologikoetan pisu garrantzitsua dute arazo emozional horiek eta, antsietatearekin batera, depresioa da haurretan eta nerabeetan ematen den osasun mentaleko arazo ohikoena.

Haurren eta nerabeen depresioa ez da erraza diagnostikatzeko, helduekin alderatuta, sintomak desberdinak izan daitezkeelako. Gainera, duela urte batzuk arte ez da bereziki ikertu den alor bat. Haurtzaroan eta nerabezaroan ematen den depresioa hobeto ulertu nahian, zenbait azterlanek babeserako faktoreak eta arrisku faktoreak identifikatu dituzte: desoreka kliniko esanguratsua, norberaren gaineko iritzi eskasa, estres maila handia eta gaitasun sozial urria, esaterako, seinale garbiak izan daitezkeela ohartarazi dute adituek. Eta garrantzitsua da seinale horiei adi begiratzea, diagnostiko goiztiar batek epe luzera arazo larriagoak ekidin ditzakeelako.



Pozik Bizi programak ikasgelan egiteko askotariko saioak proposatzen ditu. GAUR8

MAITE GARAIGORDOBIL LANDAZABAL

EBALUAZIO ETA DIAGNOSI PSIKOLOGIKOKO KATEDRADUNA

«Haurrei eta nerabeei arazoei eta ondoezari aurre egiteko tresnak eskaini behar zaizkie bizitzako lehen urteetan»

Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna da Garaigordobil eta denbora luzea darama haurren eta gaztetxoen depresioa ebaluatzen eta aztertzen. Gero eta larriagoa den arazoaren aurrean, prebentzio tresnak garatu behar direla garbi dauka; dauden kasuak ahalik azkarren detektatzeko eta gerta daitezkeenak ekiditeko.

Datuei begiratuta, haurren depresioa arazo garrantzitsua da. Pertsona zaurgarriagoa al da bizitzaren aro horretan?

Datuak kontuan hartzekoak dira: 7 eta 10 urte bitarteko haurren %4,5ek depresio larria sufritzen dute eta %5ek depresio arina. Zalantzarik gabe, haurtzaroa bizitzako etaparik zaurgarrienetakoa da eta horregatik depresioak ondorio larriak ekar ditzake. Eragin handia dauka neska-mutikoen garapen osoan, alor asko kolpatzen dituelako; eskola, familia, eremu soziala... Gainera, epe ertainera eta luzera ere ondorioak izan ditzake, nerabezaroan eta helduaroan bestelako gaixotasun mentalak izateko arriskua areagotzen duelako.

Haurtzaroan gertatzen diren nahasmendu emozionalek kalte garrantzitsuak ekar ditzakete haurraren garapenean, nahasmendu horiek giza funtzionamenduaren arlo guztiei eragiten dietelako; intelektuala, emozionala, fisikoa, jarrerari loturikoa... Hartara,

nahasmendu horiek haurtzaroan edota nerabezaroan gertatzen direnean ohikoa izaten da eskolan errendimendu eskasa izatea, arazoak izatea familiako harremanetan eta harreman sozialetan, osasun arazoak izatea edota suizidio ideiak izatea. Ez da ahaztu behar depresioak berekin dakarren suizidio arriskua.

Zuen ikerketetan ikusten denez, 2005etik 2015era bitartean gora egin du haurren eta nerabeen depresioak.

Bai, horrela da. Osasunaren Mundu Erakundeak haurren eta gaztetxoek depresioak gora egin duela nabarmendu du eta oso errealitate kezagarria da zalantzarik gabe. Depresioa arrazoi edo faktore etiologiko askorekin lotuta dago; biologikoak, herentziazkoak, ingurumenekoak... Kanpoko faktoreen artean, adibidez, pisua daukate gehiegizko exigentzia akademikoak –batzuetan porrot eskolarra bultzatuz–, eskola jazarpenak, dibortzioak sortutako familiako estresak, tratu txarrek, abandonuak, gehiegizko babesak, drogek...

Haurren eta gaztetxoek arteko suizidio datuak eta dituen ondorio larriak ikusita, erabat beharrezkoa da prebentzioa lantzea adin goiztiarretan. Tresnak sortu behar ditugu gerora depresio kasu larri bihurtu daitezkeen lehendabiziko sintomak gerarazteko.

Horretarako behar-beharrezkoa da depresio sintoma horiek ahalik eta azkarren detektatuko dituzten programak lantzea. Era berean, programa horien bidez haurrek eta nerabeek arazoei eta ondoezari aurre egiteko tresnak landu ditzakete eta atzera bueltarik gabeko jarrerak, adibidez suizidioa, ekidin.

Haurren eta nerabeen depresioa zehaztea zeregin konplexua dela diozue zuen ikerketetan. Zergatik? Haurtzaroan eta nerabezaroan depresioa diagnostikatzea ez da erraza, ondoeza ez baita agertzen pertsona helduetan agertzen den modu berean. Haur eta gaztetxoetan garapen intelektuala, soziala eta emozionala martxan dago oraindik eta horrek zaildu egiten du diagnostikoa.

Diagnostikoen gidaliburuetan depresioa helduen nahasmendua bezala agertzen da nagusiki eta apenas aipatzen den ezer haurren depresioari buruz. Kasu horretan tristura beste era batera agertu daiteke; bortizkeria, haserrea, sumindura...

Askotan, haurretan edota nerabeetan ematen den depresioa ez da detektatzen. Horregatik oso garrantzitsua da ikasleen artean modu sistematikoan ebaluazio tresnak martxan jartzea, depresio kasu horiek azkar eta ondo identifikatu ahal izateko.

Depresioaren lehen zantzuak 7-8 urte inguruan agertzen direla diozue. Zeintzuk dira seinaleak?

Depresioa izateko aukera dezente areagotzen da pubertaroan, baina edozein adinetan gerta daiteke. Depresio nahasmenduak 11-12 urte inguruan nabarmentzen dira normalean, baina lehen sintomak lehenago ematen dira, 7-8 urte inguruan.

Zeintzuk diren seinaleak? Haur bat deprimetuta dagoenean bere jarrerari eta portaerari denboran irauten duten aldaketak sumatzen dira; tristura, inguruko gertaerez gozatzeko ezintasuna, besteekin harremana



«Tristura, apatia, uzkurdura, eskola errendimendua makaltzea, denboran irauten duten arazo fisikoak, haserrea edota sumindura oso kontuan hartzeko seinaleak dira, alerta seinaleak»



GAUR8

gutxitzea, eskolako errendimendua makaltzea, arazo fisikoak (buruko mina, tripako mina...), protesta egiteko joera, haserrea, sumindura... Beraz, tristura, apatia, uzkurdura, eskola errendimendua makaltzea, denboran irauten duten arazo fisikoak, haserrea edota sumindura oso kontuan hartzeko seinaleak dira, alerta seinaleak. Horiek gertatuz gero, sakoneko ebaluazio psikologiko bat aholkatzen da, arazoaren muinera joan ahal izateko.

Suizidio ideia gintza aldatu egiten omen da adinaren arabera. Ikertzaileek dioenez, 6 eta 12 urte bitarteko haurren %16k suizidio ideiak dituzte. Hain adin txikian eman daiteke hori?

Bai, inolako zalantzarik gabe, suizidio ideia gintza haurtzaroan presente egon daiteke, oso adin goiztiarretan gainera. Gainera, Osasunaren Mundu Erakundeak nabarmendu du suizidio tasak gora egin duela gazteen artean. Pentsa, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean suizidioa da bigarren heriotza kausa. Datu horiek ikusita, erabat beharrezkoa da sintomak ahalik eta azkarren detektatzea; bizitzako lehen urteetan ematen diren emozioen nahasmenduak prebenitzeko programak martxan jartzea; sintomak agertzen direnean bakarkako esku hartze terapeutikoak bultzatzea eta familiei laguntza ematea haurren depresioari aurre egiteko pautak egokien inguruan.

Prebentzioa eta prebentzioa. Horixe omen bidea. Nola egin daiteke hori? Haurren depresioaren prebalentzia datuek eta horrek izan ditzakeen ondorio larriek garbi uzten dute oso goiz hasi behar dela lanean, adin goiztiarretan, hasierako sintoma horiek ahalik azkarren frenatzeko. Horrela lortuko dugu gerora arazo larriagoak edota bestelako nahasmendu mentalak ekiditea.

Prebentzioak eskatzen du bizitzako lehen urteetan gerta daitezkeen

nahasmendu emozionalari arreta jartzea. Finean, haurrei eta nerabeei arazoei eta ondorezari aurre egiteko tresnak eskaini behar zaizkie. Horretarako programak bultzatu behar dira. Horrela lortuko da depresioari eta suizidioari aurre egitea. Gainera, garrantzitsua da depresioari eta suizidioari buruz hitz egitea, oraindik tabua baita gure gizartean.

Haur eta gazteei emozioak kudeatzen erakutsi beharra nabarmendu duzu.

Garrantzitsua da gurasoak bide horretan hezteko, haurren ongizatea eta osasun mentala hobetuko duten pautak bultzatzea. Horrela, beren seme-alabek arazo emozionalak eta portaera arazoak izateko aukera murriztuko dute. Adibidez, autoestimua indartu behar da beren lorpenak nabarmenduz; portaera egokiak aitortu behar dira; maitasuna adierazi; erruak, kritikak eta akatsak ez dira behin eta berriz nabarmendu behar; enpatia bultzatu behar da; portaera soziala indartu; mugak jarri autoritarioak izan gabe eta batez ere denbora eskaini seme-alabei. Denbora eskainiz lotura areagotu egiten da eta seme-alaben portaerak gertutik jarraitzen dira.

Jendarte bezala, serio hartzen al dugu depresioa? Norberaren arazo pertsonala bezala ikusten al da?

Gizarteak ez dio arretarik jartzen haurren depresioari, nahiz eta azken urteotan sentsibilitatea areagotzen ari den. Depresioa, adin guztietan, arazo indibidual bat bezala ikusten da eta ez da horri buruz hitz egiten, tabua da. Horregatik, oso garrantzitsua da gizarteak kontzientzia hartzea eta pertsonen depresioan inguru sozialak duen garrantziaz jabetzea. Hartara, orokorrean depresioari aurre egiteko eta bereziki haurren depresioari aurre egiteko oso-oso garrantzitsua da ingurune soziala. Ez genduke beste aldera begiratu behar.

Irudimenezko errealitateak

Antton Izagirre

Noah Harari idazleak dio, gizaki mota honek egin duen iraultzarik handiena iraultza kognitiboa izan dela. Hau da, fikzioez hitz egiteko gaitasuna dela *Homo sapiens*-aren ezaugarririk bereziena. Haren hitzetan, fikzioak edo errealitate imajinatuak ez dira gezurrak. Errealitate imajinatua giza talde edo kolektibo batek sinesten duten zerbait da eta indar handia eragiten du munduan.

Horrela sortu dira mitoak, jainkoak, erlijioak, ideologiak, dirua, korporazio handiak, estatuak, eta abar. Iraultza kognitiboaz geroztik, gizakia bera, ingurunea, behar naturalek osatzen duten errealitate objektiboa eta kolektiboki eraikitako irudimenezko errealitatearen artean bizi da.

Irakurri dut nola Sri Lankako arrantzale xume batek arrantzan lortutako etekin guztiak elektrizitaterik gabeko bere etxolan telebista aparatua jartzeko erabili zituen. Segur aski, imajina dezakegu etxolaren ilunpean jesarrita, hari begira arrantzalea. Gure modernotasunetik begiratuta jarrera primitibo edo hutsal modura uler genezake arrantzale harena.

Ez horratik Donostiako banderaren lehian arraunlariak eta haien jarraitzaileek erakutsi diguten irudia. Nahiz eta trapu bat besterik ez izan eta arraun elkarte-ko hormaren batean zintzilikaturik geratuko den, beste funtziorik gabe, sorturiko irudimenezko errealitatea gehien-gook ez genuke primitibo eta hutsala dela esango.

Edo, Hondarribiko azken alardean, festetako jantzi apainen gainetik plastiko beltzez estalita ikusi ditugun neska gazteek sortutako irudimenezko errealitateaz zer pentsatu?

Ez gara konturatzen, ordea, errealitate horiek oinarri berbera dutela. Kontua zera omen da: nola konbentzitu milioika pertsona zenbait istorio sinets ditzaten.

Horrela batzuek lortu dute erlijioak, pentsaerak, generoak, arrazak, koloreak, adinak banatutako gizarteak diruaren sinismenean bat etortzea; objektiboki baliarik gabekoa, paper hutsa den diruaren gainean irudimenezko errealitaterik handiena eraikitzea. Dirua omen da gizakiek sorturiko konfiantza-sistema bakarra.

Guztia, garapenaren izenean. •

Kijera gazte(txe)a

Miren Azkarate
Badiola

Berrogei urte bete dira Iñaki Kijera gazte donostiarra erail zutela. Manifestazio batean parte hartzen ari zen 18 urteko gaztea zen, eta gaur egun oraindik onartu gabeko beste eraildako bat da zerrenda beltzean. Baina bere oroimenak bizirik dirau eta horren adibide garbia da Donostiako Parte Zaharreko gaztetxeak Kijera izena duela.

Gaztetxe horrek urtebete egin berri du oraintxe eta hori ospatzeko hainbat ekimen eta ekintza antolatu dituzte.

Meritu galanta dute bertan aritzen diren gazteek, ez baita batere erraza gaur egun, auzoa zer bilakatu den ikusita, horrelako proiektu bat aurrera eramatea.

Urteak dira Donostiako Parte Zaharra turismotik bizi dela, baita hirian egon diren PSOEko eta EAJko alkateen politika horretara bideratuta dagoela ere, bertako auzotarren behar eta nahiei bizkarra emanik gainera. Baina azken urteetan egoera jasangaitza bilakatu da bertakoentzat; agintariei kontuak es-

kuetatik ihes egin diela iruditzen zait eta ez dut aldaketa zantzurik ikusten momentuz.

Eta desertu horren aurrean oasi txiki bat da Kijera gaztetxea: bertakoentzat (gazte, ume edo heldu) sortutako espazio bat. Urteetan auzoko ikastola izan zen eta dagoeneko hamabi urte hutsik zeramatzan eraikinean eraikitako txokoa. Auzotarrek auzotarrentzat, beste inork ez baitu haiengan pentsatuko.

Zorionak urteurren honetan eta urte askoan! •

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZA:



Amaia
BALLESTEROS

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*





> Baionatik Altsasura

Espainiako Auzitegi Gorenean Altsasuko auziko defentsak aurkeztutako helegiteak aztertu dituzte aste honetan. Horren harira, Baionako Bernat Etxepare Lizeotik elkartasun oihu bat bidali nahi izan dute, klaseak eten eta elkarretartzeara eginez. «Altsasuko gazteei eta haien familiei babesa erakusteko» asmoz, berrehun ikasle inguruk parte hartu dute elkarretaratzean, lizeoaren



inguruan lehendabizi eta hiri-ko kaleetan ondoren, trikiti doinuek lagunduta. Hamasei eta hemezortzi urte arteko ikasle gehienek egin dute bat elkartasuna erakusteko ekimenarekin.

Elkartasuna bertso moduan ere adierazi dute, Ipar Euskal Herriko bertsolari gazteen 2019ko txapelduna den Nahia Etxeberrik kantuz igorri baitu sostengu mezua.

> «Gora Anaita!»

Oraingoan Alfredo Perdiguero izan da sareak sutu dituenak. @PerdigueroSIPEp Twitter erabiltzaileak mezu batean azaltzen duenez, polizia espainola da eta haserre dago eskubaloiko Helvetia Anaitasuna taldearen partida batean us-tez jokalarien «Gora ETA!» oihua entzun ostean. «Hau muntaia bat izango da, ezta?», galdetu eta Twitterren taldeko jokalarien bideoa jarri du. Iruñeko taldea bera atera da sare sozialetara azalpenak ematera



eta garbi uztera beti «Gora Anaita!» oihuarekin animatzen dutela taldea. Hala eta guztiz ere, sarean izan dira polizia espainolaren teoria babestu eta indartu dutenak.

Ez da ahaztu behar duela aste batzuk Eibar futbol taldearen txanda izan zela. «Gora eta gora beti...» abestiak Twitter piztu zuen eta erabiltzaile askok «eta» horren erabilera salatu zuten. Ea Euskal Herriko zein kirol talderi tokatzen zaion hurrena...



> Eskola kirola, hezitzailea

“Ikoitzen arkatza” blogean jasotako daiteke joan den asteburuan Azpeitian izandako jardunaldi interesgarri batzuen berri. Azpeitiko Herri Hezitzaileak taldeak eta bertako Udalak elkarlanean antolatuta, “Eskola kirola herri hezitzaileen ikuspegitik” gaiaren bueltan aritu ziren. Azpeitiak tradizio handia du kirol arloan



eta, aukera hori baliatuz, Eskola Kirol Kontseiluak, Udalak eta herriko hiru ikastetxeek elkarlanean proiektu bateratua osatzea adostu dute. Hartara, besteren artean, honako dekalogoak aurkeztu dituzte: kirolari onaren dekalogoak, hezitzaile onaren dekalogoak eta ikusle onaren dekalogoak. Egunotan, gai oso garrantzitsua.


Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Ikasturte berrirako gonbita

Ikasturteko lehen eskola eguna da Gipuzkoako herri euskaldun bateko hezigunean. Garik zazpi urte ditu eta bigarren urtea du Euskal Herrian eta hezigune horretan; ikasturte hone-tan Lehen Hezkuntzako bigarren mailan arituko da. Ibaik, aldiz, sei urte ditu eta lehen eguna du hezigunean; hark lehenengo maila hasi du. Beste herri bateko hezigunetik dator, txikia zela bere guraso izango zirenek ekarri zuten herriko hezigunetik, hain zuzen.

Goiz erdian, bakoitza bere taldeki-deekin jaitsi da jolastokira. Gari hurreratu zaio Ibairi eta halaxe esan dio: «*Yo soy de Cuba ¿y tú de que país eres?*». Ibaik, berriz, batere zalantzarik egin gabe «*Yo soy de Hernani*» erantzun dio.

Harrigarria izan da ordura arte ezezagunak ziren bi haurren arteko gerturatzea. Ez da kasualitatez izan, ordea. Biak ala biak beltzarana dute azala, eta ile kizkur handia. Erraz identifikatuko zuten elkar, gainerako haurren zuritasunaren erdian kidetuta sentituko zuten beren burua.

Eta pertsonen patua da kide-tu beharra, berdinekin, edo guregandik antzekoenak direnekin, kide-tu beharra. Horrela egin dugu munduan gaudenetik, eta horrela egin beharko dugu biziraun nahi badugu, behintzat.

Bi haurrak besteen artean ikusita, egia da, beraien larruaren kolorea dela atentzioa ematen duen lehen ezaugarria. Baina badira helduok ezagutzen ditugun bien arteko beste hainbat konexio. Adibidez, biak etor-kinak izan arren eta biak Euskal Her-ritik oso urrun jaio arren, biak di-tuzte izen euskaldunak. Beraien sorlekuak urrunekoa izan arren, fa-miliako norbaitek lotzen zituen Eus-


k a l
Herrira. Badituzte, bistan da, beraien artean desberdintasun sakonak, ba-ten hizkuntza euskara da eta bestea-rentzat nahikoa arrotza izaten jarrai-tzen du.

Bi mutikoei eta ateraldiari begira, hainbat ideia etorri zaizkit arrapala-dan. Helduok, eta batik bat hezkun-tza arloan gabiltzanok, etorkin dei-tzen diegune-i buruz esaten ari garena –ez dezagun ahantz asko eus-kal herritarrak direla, gure moduan–segregazioari, inklusioari, harrerari, egokitzapenari eta beste hainbati buruz ari garenean.

Berehala nire burua irudikatu dut Johannesburgoko eskola bateko jo-lastokian. Halako batean, ni bezain azal zuria duen laguna begitandu dut. Nire erreakzioa irudikatu nahian nabil. Beste zuria alemania-rra izan arren edota errusiarra etxe-kotzat hartuko nukeela ziur naiz.

Hezigunetik atera eta etxerako bi-dean, lagunak gure herriko kaleeta-ko batean topatu duen horma izki-riatuaren argazkia bidali dit. Argazkia zabaldu dudanean “*Procu-rad que salgan con más curiosidad que deberes*” irakurri dut. Gari eta Ibai etorri zaizkit burura, haien ja-kin-mina. Eta nire buruari galdetu diot zer-nolako lekua ote duen jakin-minak heziguneetan, txostenetatik at, noski. Zenbat hartzen ote dugun kontuan, zenbat arduratzen ote gai-tuen, zenbat zaintzen ote dugun gu-re jardunean! Norbaitek proposa-men iradokitzaile bat utzi digu horman idatzirik: «Saiatu etxerako lanekin baino jakin-min handiagore-kin irten daitezen».

Nik, badaezpada, nire koaderno es-treinatu berrian idatzi dut gonbita: «Ez utzi jakin-mina ihartzen!». Ez da erronka makala. Saiatu behar dut... bizitza bizitzen. •



Horra hor gonbita: «Saiatu etxerako lanekin baino jakin-min handiagorekin irten daitezen».

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Gaurko inkisizioaren «adiskidetuak»

Alfonso de Salazar y Frias, inkisidorea, 1610eko Logroñoko Fede Autoaren ondoren iritsi zen euskal lurraldeetara. Asmo ezberdinak zituen gure mendietara iritsi zenean, baina nagusia sorginkeriararen mitoarekin amaitzea zen. Ez zen sorginen inguruan zalantzak zituen lehena, ez bakarra. Baztan eta Bortzirietako lau lagunetik bat, hau da, 1.271 lagun, sorginkeriarengatik susmagarritzat jo zituztenean askok pentsatu zuten ez ote zen dena agintarien gehiegikeria eta asmakizuna.

Salazar y Friasek aitzindariak izan zituen, ez bakarrik Zugarramurdiko auzian. Mende erdi lehenago Zaraitzu bailarako alkateak susmo berdinak adierazi zituen, eta, Salazarren garaietara itzuliz, Antonio de Venegasek, Iruñeko apezpi-kuak, Inkisidore Nagusiari bidalitako gutunean hala adierazi zion: «*que en este negocio de las brujas hay grande fraude y engaño... y que mucho de lo que publican es nacido todo de la demasiada diligencia que los comisarios de la Inquisición han hecho*». «*Demasiada diligencia*» hori torturei buruz hitz egiteko modu ez zuzen bat baino ez zen. Jakina zen sorginkeriarengatik salatuak izan zirenen aitorpen gehienak, edo guztiak, tortura prozesu gogor eta luzeen ondorioz lortu zirela. Hego Euskal Herrian milaka susmagarri egon ziren mende bakar batean, ehunka zigortu. Zigor motak desberdinak ziren, heriotza, kasu larrietan, baina beste batzuetan lurraldetik kanporatuak izatea edo familia osoaren ondareen galera.

Azkeneko makroepaiketekin lauhun urte atzera egin dugu. Gaur egungo Euskal Herrian, garaiko Baztan edo Bortzirietan sorginkeriarekin gertatzen zen bezala, ia familia guztietan edo lagun talde guztietan “dena da ETA” leloaren pean Estatuaren zigorra modu

batean edo bestean jasan dutenak ezagutzen ditugu. Zigorrek kasu batzuetan heriotzaraino eraman dituzte batzuk, beste askok gaztaroaren urte onenak galdu dituzte kartzelan, ondarea eta bizimodua galdu dituztenak ere badira. Berrito ere, XVII. mendeko inkisidoreak bailiran, sistema judizialaren indar guztiarekin baliatu dira 47ek nolabaiteko zigorra jaso dezaten.

Egia da askok arnasa hartu genuela jakin genuenean bi taldekideren sakrifizioari esker beste 45ek ez zutela kartzelan egun bat gehiago emanen. Baina lasaitasunak berehala ezinegonari utzi zion lekua beste motako zigorrak ezagutu genituenean. Mekanismoa garai batean Inkisizioak Catalina de Aranibarrekin erabili zuen bera izan da, beldurra. Berak zuzenean azaldu zion Salazar y Friasi gertatutakoa; «*habiendo*

Askok arnasa hartu genuen bi lagun
sakrifizioari esker beste 45ek ez zutela
kartzelan egun bat gehiago emanen
jakitean. Baina lasaitasuna ezinegon
bihurtu zen beste zigorrak ezagutzean

procedido los jurados y justicia con prisiones, vejaciones y molestias contra ésta so color de imputarle ser bruja y pretendido que lo confesase, retorciéndole el pescuezo hasta casi hacerla morir, por evadir las dichas molestias sin otro fundamento alguno vino ésta a confesar lo era sin haberlo sido jamás ... y en la Inquisición de Logroño en virtud de sus confesiones fue absuelta y reconciliada».

Kasu honetan Estatuarekin adiskidetasuna “bai” xume batekin lortu dute. Baina “bai” horrek ekarriko dizkien galera guztiak lotsagarriak dira bere burua zuzenbidezko estatutzat jotzen duen Espainia bezalako lurralde batentzat. •

Xabier Berasaluze Leturia, musikaren munduan *Leturia* eta gertukoentzat *Letu*. «Leturia nire bigarren abizena da. Gure aita amaren etxera ezkondu zen, leturiata- rren etxera, eta horregatik he- rri mailan beti izan gara Letu- ria etxekoak. Trikitiaren munduan hasi nintzenerako *Leturia* nintzen herrian eta

izen horrekin geratu naiz». As- kotariko musika tresnak jo- tzen dituen arren, berak dioen bezala, «pandero xume» bate- kin egin du bidearen parte ga- rrantzitsuena, berrogei urtetik gorako musika bide oparoa. Li- buru berezi batean jaso du bi- de horren parte txiki bat, zazpi egunetan panderoa jotzen ira- kasteko aitzakian, garai baten kronika ere jaso duelako; 1976tik -1984ra bitartekoa gu- txi gorabehera. «1984an Jose-


ba Tapiarekin hasi nintzen. Eta hor, zalantzarik gabe, beste etapa bat abiatu nuen». «Norbaiti irudituko zaio orain ehun urteko kontuekin natorrela, baina horiek denak guk bizitakoak dira, duela 35- 40 urte. Pentsa gauzak nola al- datu diren denbora gutxian». Umorez kontatzen duenez, ingurukoei liburu bat idatzi zuela esan eta eskuak burura bota zituzten, «auskalo zer egin duan». Leturiaren hitze-

«Bilboko Corte
Ingles dendan erosi
nuen nire lehen
panderoa,
'primitibo' izenekoa.
Eta neure kasa hasi
nintzen panderoa
jotzen ikasten.
Trikiti kaseteak
behin eta berriz
entzunez, beste
pandero jotzaileei
begira...»

tan posible da zazpi egunetan panderoa jotzen ikastea. Berak 43 urte daramatza eta egunero ikasten segitzen omen du.

Nondik nora okurritu zaizu astebetean panderoa ikaste-ko metodoa osatzea eta argi- taratzea?

Niri betidanik gustatu izan zait idaztea. Egunero-egunero idazten dut nondik nora ibili naizen. Hiru minutuko lana da eta orain sekulako altxorra



«Perkusio kolpe txar baten ondorioz orkestra osoa geratu egin daiteke. Panderoarekin berdina gertatzen da»

daukat, azken 45 urteetako agendak gordeta baititut. Badakit egun bakoitzean zertan aritu naizen.

Azken bi urtean Korrontzirekin ari naiz. Quebecera egin-dako bira batean, Montrealen ginela, egun pare bat libre izan genituen. Gure artean askotariko gaiak izaten dira hizketarako. Horrelako elkarrizketa batean Agus Barandiaranek eta Cesar Ibarretxe teknikoak aipatu zidaten panderoa jotzeko metodo bat egin behar nuela. Irakaskuntzan badaude, batzuk oso sakonak, beste batzuk arinagoak... Bada, panderoa jotzen erakusteko gauza erraz bat egitera animatu ninduten. Horrekin bueltaka geratu nintzen eta etxeratzean, erronkari eutsi nion. Helburua metodo hiperazkarra sortzea zen; argia, zuzena, didaktikoa, erraza, musika munduan ez zegoenarentzat ere egiteko modukoa. Horretan jarri eta zazpi lezio atera nituen, panderoa jotzen ikasteko zazpi pauso edo. Baina gauza sinpleegia geratzen zen eta musika instrumentu batzuk laguntzeko aholkuak erantsi nizkion ondoren.

Eta pandero jotzen zuri gertatutako pasadizoak.

Bai. Nik soinua jotzen Eleuterio Tapiarekin ikasi nuen. 1964tik 1982 ingurura arte edo ibili nintzen harekin. Joseba Tapia ere orduan ezagutu nuen, Eleuteriok ezin zuenean Josebak berak erakusten baitzidan. Eleuteriok soinua erakusteko modu desberdina zuen, propioa, bai haurrei eta bai helduei. Ikasgaitik ikasgairara bere pasarteak, bizitzan gertatutakoak, txisteak, herri kirolen munduan ikusitakoak... kontatzen zizkigun. Izugarri interesgarria egiten zuen klasea.

Eta akaso klase erdian behia erditzen hasi zela eta sokatik tiratzea tokatzen zitzaizuen.

Bai, Asteasukoko Mintegia base-rrian ematen zituen klaseak eta batzuetan horrelakoak gertatzen ziren. Edo trumoia zetorrela-eta, zabaldua zituen belarrak jasotzen laguntzen genion eskuarearekin. Oso aberatsa izan zen garai hura. Mintegian beti zegoen jendea; harri jasotzaileak, segalariak, trikitilariak...

Nola iritsi zinen Eleuterio Tapiarengana?

Lau urte nituela pianoa jotzen hasi nintzen etxean. Gure aita musikaria zen eta familian ere musikari asko zeuden, gehienak haize-instrumentuak jotzen zituztenak. Pianoarekin hasi nintzen, gero gitarrarekin, gitarra elektronikoa, flautina... Elgoibarren bizi ginen eta familia osoa Villabonara etorri ginen. Lagunartean erromeria giroan hasi ginen mugitzen eta trikitia gustatu. Galdetu nuen nork erakusten ote zuen eta Eleuterioren gana bidali ninduten.

Hainbeste instrumentu joarren, «pandero xume» batekin gozatu duzu gehien. Ematen al zaio panderoari merezi duen prestigioa?

Banda batean edo orkestra batean, zein instrumentuk dauka garrantzia gehien? Ba igual esango nuke bonboak daukala. Haren gainean joan behar du beste guztiak, perkusio kolpe txar baten ondorioz orkestra osoa geratu egin daiteke. Panderoarekin berdina gertatzen da. Perkusioa oso zehatza da, ez zaio garrantzia ematen, xumea dirudi, erraza, garrantzirik gabea, baina haren gainean eusten da beste guztia. Pande-

roak balio du beste musika instrumentu batzuk laguntzeko, baina baita bakarka aritzeko ere.

Liburuan kontatzen duzunez garai batean kopla kantariak panderoak bakarrik lagunduta aritzen ziren eta gehienak emakumeak ziren.

Bai, horrela da. Pentsatu soinuua 1890. urte inguruan iritsi zela hona. Ordura arte erromeriak kantuz eta pandero jotzen egiten ziren, Maurizia Aldeiturriaga bera horrela aritzen zen. Eta pandero jotzaileak dantzan jartzen zuen plaza. Oraindik Galiziako toki batzuetan horrela agertzen da panderoa; emakumeak panderoa joaz eta kantuan, bestelako instrumenturik gabe.

Europatik soinu berria etorri zenean, alboka, dultzaina, txirula... jotzen zuten musikariek tresna horiek albo batera utzi eta soinuari heldu zioten. Zergatik? Soinuaren bidez diru gehiago irabazteko aukera zegoelako. Beste instrumentuekin ere egiten ziren erromeriak, baina soinuua iritsi zenean jende guztia liluratuta geratu zen. Elizako organo handiaren armonia guztia eskuetan jartzeko aukera ematen zuen eta jende guztia traste hori zegoen tokira joaten zen. Txanponak han zeuden. Pentsa, pieza bakoitzeko ordaintzen zitzaaien musikariei; dantza solteko piezek prezio bat zeukaten eta lotutako dantzek, bikoitza.

Soinua modan jarri zen. Baina Eleuterio Tapiak aholkatu zizun panderoari heltzeko.

Bai. Ni aritua nintzen bakarrik erromeria batzuetan, bazkari batzuetan, soinua jotzen. Eleuteriok ikasleren bat ondo aritzen baldin bazen, berarekin

XABIER BERASALUZE «LETURIA»

MUSIKARIA

«Tarrapatan, pandero baten ibilbidea»

izeneko liburua kaleratu berri du.

Astebetean panderoa jotzeko metodoa

ondu du, «Letu-metodoa» izenda

daitekeena. Eta ikasketa samurragoa

egiteko, pasadizoak eta bestelakoak

kontatzen ditu tarteka, maisu izan zuen

Eleuterio Tapiak egiten zuen antzera.

Amagoia Mujika Telleria



Maialen ANDRES | FOKU

eramaten zuen tarteka, han eta hemen soinua jotzera. Horrela aritu nintzen plaza batzuetan Eleuteriorekin soinua jotzen.

Eleuteriok esan zidanez, erromeria batera joateko lauzpabost pandero jotzaileri deitu behar zion, ez zen pandero jotzaile onik eta gaizki ibiltzen zen bikotea topatzeko. Soinu jotzaile mordo bat zegoela, atzetik ere asko zetozeela, denentzat plazarik izango ote zen zalantzak zituela eta panderoa jotzen ikasteko aholkatu zidan. Ondo iruditu zitzaidan.

Soinua jotzen segitu nuen eta panderoarekin hasi nintzen. Soldaduskatik bueltan, Bilboko Corte Ingles dendan, nire lehen panderoa erosi

nuen, “primitibo” izenekoa. Eta neure kasa hasi nintzen panderoa jotzen ikasten. Garai hartan zeuden trikiti kaseteak behin eta berriz entzunez, erromerietara joan eta beste pandero jotzaileei begiratzuz... horrela ikasi nuen nik panderoa jotzen.

Liburuan kontatzen duzunez, erromerietara joan eta ezkutuan aritzen zineten besteek jotzen zituzten piezak grabatzen.

Horrelaxe aritzen ginen. Garai haietan irakasleak berak zekizkien piezak erakusten zizkizun. Baina horietatik aparte beste mundu bat zegoen. Pieza horiek lortzea zaila zen; eskatuta ez zizkizuten ematen musikariek eta partiturarik ez ze-

goen. Orduan, erremediorik gabe, talde bat osatu genuen lapurreta egiteko. Ezkutuan joan eta piezak grabatzen genituen eta gero gure artean trukea egiten genuen, pieza bakoitzeko dirua ordaindiz. Gero, etxera etorri, magnetofoia martxan jarri, eta horien gainean ikasten genituen piezak, erabat belarriz.

Garrantzitsua da belarria musikariarentzat.

Oso garrantzitsua musika instrumentu guztientzat. Kanpogan ibili izan garenean, Kandan, Ameriketako Estatu Batuetan eta baita Europan ere, konturatu gara zer-nolako garrantzia ematen dioten belarria lantzeari. Haurrak edo-

zein musika tresna ikastera joaten direnean, hasieratik instrumentua ematen diete. Irakasleak instrumentua jo egiten du eta hari begira ikasten dute hurrek, begiz eta belarriz. Eta gero, dagoeneko tresna erabat kontrolatzen dutenean, solfeoa erakusten diete. Zaletasuna sortzen dute haurraren eta gero hasten dira idatzitako musikarekin. Era horretara haurra erabat lotzen da musika tresna horretara eta ez du sekula utziko.

Musika eskoletan zer aldaketa ikusten duzu beraz.

Zalantzarik gabe. Zenbat haur dauden musika tresna bat ikasten eta ikasturte osoan bospasei pieza baino ez dituz-

tenak ikasten. Eta, askok, gaizki gainera. Nik Eleuteriorekin hilabeteetan ikasten nituen bospasei pieza.

Musika irakaskuntzan gauzak aldatu beharra dago. Gauza batzuk ikusita, normala da bizpahiru urtean hurrek instrumentua gurasoei ematea; «tori, zuentzako, gorde armairuan».

Liburuan, hitanoz, bizi-bizi aritzen zara Kattun eta Xarparekin, zure bi pandero.

Bai, nire bi pandero dira. 120 bat panderoa bilduma daukat, mota guztietakoak eta jatorri desberdinetakoak. Liburuan panderoekin hitanoz hitz egitea erabaki dut gertutasuna adierazteko eta hizkera

hori aldarrikatzeko. Nire lagunartean beti hitanoz egiten dut, zenbait lagunekin ez nuke jakingo zuka egiten. Aitortu behar dut, hala ere, emakumeen aldaera gehiago kostatzen zaidala, ez dudalako hainbeste erabiltzen, eta Ramon Rezolaren laguntza garrantzitsua izan dudala parte hori txukuntzeko.

120 panderoako bilduma oparoa daukazu. Horietako batzuk, zuk eginak.

Tira, batzuk egin ditugu nik eta Astiazaranek. Nik esaten diot nola egin, baina berak egiten du, oso mainosoa delako. Adibidez, azkena galbahe bat erosi nuen, burdinazko sarea kendu genion eta larrua jarri. Larrua kanpotik ekartzen dugu, Zamoratik, ardiarena edo ahuntzarena. Gorputzaren parte bateko edo besteko larrua izan, oso desberdina da. Normalean onena sabelaldeko larrua izaten da. Eta horrelaxe egin dugu pandero bat.

Zaindu ere egin behar dira panderoak.

Bai, eta liburuan esaten dudanez, panderoak zorroan ondo jaso behar dira eta beti tenperatura antzekoan mantentzea komeni da. Larrua eta egurra material biziak dira eta zaindu egin behar dira.

Kontatzen dituzunetan nabarmentzen denez, beti zen momentu egokia soinua eta panderoa jotzeko, eta punta-ko bertsolari, kirolari eta sortzailez inguratzen zintzen.

Bai, soinua eta panderoa beti aldean genituen eta edozein momentu eta toki zen egokia horiek atera eta jotzeko. Eta egia da garai hartan puntako bertsolari eta sortzaile askore-

kin aritu nintzela plazan, parrandan, hizketan... Zorte handia izan da hori. Pentsa, nire lehen joaldia Xaprerekin egin nuen nik. Lazkao Txikirekin askotan ibili naiz, Mitxelena-rekin... Denborarekin konturatu naiz sekulako zortea izan dudala, jende horrekin asko ikasi dudalako.

Panderoak asko eman dizu.

Dena. Emaztea ere erromeri buelta batean ezagutu nuen [barreak].

Erromeriak sozializazio toki garrantzitsuak ziren.

Bai, zalantzarik gabe. Dantzak garrantzia handia zeukan, jendea harremanetan jartzeko modua baitzen. Oholtza gainetik, dena ikusten nuen nik; berlarri bat panderoan, bestea musikan eta begiak, plazari begira erne. Asteburuz asteburu ikusten nituen nik bikoteak nola egiten ziren.

Esanda bezala, edozein toki eta une zen egokia soinua eta panderoa astintzeko. Baita Guardia Zibilaren aurrean ere.

Hori ere tokatu izan zaigu. Gauero ibiltzen ginen batera eta bestera eta beti topatzen genituen kontrolak. Beti galdara berdinak; nondik gentozen, zeinekin ibili ote ginen, jende subertsiboa ote zen... gure ibilerak susmagarriak ziren, Ipar Euskal Herrira ere asko joaten ginen, jendea ekartzen genuen bueltan etxera.

Horrelako batean, Donibane Lohizunen izandako erromeria batetik bueltan Epelarre eta biok, muga geratu gintuzten guardia zibilek. Kotxea miatu, paperak erakutsi... Azkenean, kotxetik trasteak hartu eta kaboaren aurrera era-

man gintuzten. Maleta ireki eta soinua eta panderoa ikusi zituen. Ea horiekin zer egiten genuen, ea musikariak ote ginen. Musikariak ginela esanez gero, auskalo ze paper eskatuko ziguten. Gu musika jotzailak bakarrik ginela esan genion, lagunartean jotzen genuela, bataioetan, jaunartzeetan, ezkontzetan... «eta nik sinistu egin behar al dizuet?», galdetu zigun kaboak. Pieza bat jotzeko agindu zigun, egia esaten ote genuen jakiteko. Zer pieza nahi ote zuen galdetu eta pasodoble bat esan zigun. Epelarrerri esan nion pieza bat jo behar-ko genuela handik ateratzeko. Garai hartan modan zegoen Manolo Escobarren “Que viva España” pasodoblea eta hura xe jo genuen Epelarre eta biok.

Ikusi egin behar zen guardia zibilen harridura aurpegia! Kaboak esan zigun hurrena handik pasatzean ez alde egiteko pieza bat jo gabe.

Kotxean beti lo zakua eramaten omen zenuen. Maiz, erromeria bukatu, kotxean lo egin eta hurrengo egunean mendira joaten zinen.

Mendian asko ibilitakoa naiz. Espedizio asko egin ditut; Kilimanjaro, Nepal, Cho Oyuko oinarritzko kanpalekua, Andeak, Saharako desertua... Pandero lanetan ari ez nintzenean, erabat mendian ibiltzen nintzen, espedizio horietarako prestatuta egoteko. Urte askoan, urri hasieratik San Martin egunera arte, niretzat hartu izan ditut egun horiek. Hor ez zegoen erromeriarik. Urriaren lehen hegazkina hartu eta munduan barna mendira joaten nintzen. Horrela egin nituen hamalau bat urte, batera eta bestera.

Xabier Amurizak liburuaren hitzaurrean «ilargi irribarretsu bat» bezala deskribatzen zaitu oholtza gainean. Oholtzan beti irribarrez. Gozatu egiten al duzu hor goian?

Normalean bai. Zoriontsua naiz oholtza gainean. Baina horretarako garrantzitsua da musika tresnaren gainean erabateko kontrola izatea, horrela bakarrik lortzen da gozatzea, pieza zurera ekartzea, aldartearen arabera era batera edo bestera jotzea...

Ni beti niretzako jotzera joaten naiz, niretzako goatzera. Eta zuk goatzen baduzu, normalean entzuleak ere goatzen du.

Liburuan musikari ofizioaren definizioa egiten duzu: zoriona munduarentzat eta zoritxarra familiarentzat.

Egia da asko ibili garela eta oraindik ere antzeko nabil. Duela hiru urte jubilatu nintzen Kutxatik, berrogei urte eta gero, baina martxa antzekoan jarraitzen dut. Ez dut bizitza beste era batera ulertzen. Aste honetan bertan Aizkorri-igoko naiz lagun batekin eta panderoarekin hiru hitzordu ditut; Korrontzirekin bat, haize-instrumentuen orkestra klasiko batekin beste bat eta soinuarekin txikiago bat. Vi- valdiren pieza bat jo behar dut eta hori prestatzen ari naiz orain.

Zer esango ote luke Eleuterio Tapiak burua altza eta panderoarekin Vivaldiren pieza bat jotzen ikusiko bazintu...

[Barreak] Nik uste dut poztu egingo litzatekeela eta pandero jotzailak ausartak izan garela esango lukeela, panderoa espero gabeko bideetatik eram- an dugulako.

«Musika irakaskuntzan gauzak aldatu beharra dago. Gauza batzuk ikusita, normala da bizpahiru urtean haurrek instrumentua gurasoei ematea; ‘tori, zuentzako, gorde armairuan’»

«Zoriontsua naiz oholtza gainean. Baina horretarako garrantzitsua da musika tresnaren gainean erabateko kontrola izatea, horrela bakarrik lortzen da gozatzea, pieza zurera ekartzea, aldartearen arabera era batera edo bestera jotzea...»



«HARRIA»

Euskal kulturaren sustraieretatik ekarritako doinu, dantza eta poesia berriak

KULTURA / Xabier Izaga Gonzalez

Harria. «Hotza zarena, astuna, iluna/ baina zuk badakizu/ nere ukituak esnatu egiten zaitu/ nere igurtziak piztu/ arindu nere magalean/ eta harrotu nere bizkarrean/ nere harri kuttuna». Iñaki Perurenaren poesia horrekin hasten da «Harria» diskoa, txistua elementu nagusi duen diskoa. Poesia hori eta beste hainbat entzun ziren, halaber, joan den larunbatean Perurenaren beraren ahotik izen bereko ikuskizunean. Iñaki Palacios txistulariak, Mulixka Dantza Taldeak eta harri jasotzaile leitzararak elkarlanean sortu dute «Harria», musika, dantza eta poesia batzen dituen ikuskizuna «gure musika eta dantza tradizionala berpiztuz soinu eta koreografia berriak sortzeko».

Joan den astean aurkeztu zituzten ikuskizuna eta diskoa Gasteizko Vital Fundazioa Kulturunean. Bertan, Ritxi Aizpuru Baga-Biga diskoetxe-ko koordinatzaileak gogoratu zuenez, Palaciosek orain dela bi urte Arabako Errioxako mahats bilketarako «Ardoaren dantza» egin zuenean, bera harrituta geratu zen txistu batek nolako abiadura har dezakeen entzunda. «Iñaki ez da txistulari bakarria Euskal Herrian, badaude beste batzuk oso izen handikoak, baina halako zirimola bat sortu zen eta jende asko erakarri zuen, eta hori oso garrantzitsua da», azaldu zuen Aizpuru. «Harria» lanaren gainean, berri, ikuskizunean musikari eta dantzari Iñaki Perurenaren poesia batuz «barruko sentimenduak adierazita daude, eta horrek sekulako bultzada

emango dio», nabarmendu zuen.

Diskoan doinu leunak entzuten dira, txistu doinuak, baina, tresnaren ezintasuna nabarmenduta eta «talkarik gabe», pop edo rock ukituko soinuak ere agertzen baitira. Aizpuru-
ren ustez, borobiltasun izugarria lortu dute txistua erdi-erdian jarrita, gitarraren, baxuaren eta bateriaren laguntzarekin; abesti guztiak trikitiak gorpuzten ditu eta gehienetan harritzko txalapartak bat egiten du txistuaren gozotasunarekin. Ukitu pop, country edo rockeroek ez diote txistuari protagonismorik kentzen; aitzitik, haren balioa nabarmentzen dute. «Gure lurrean txistua trikitia baino lehenago tik dago, hori horrela da, baina, orain dela ez dakit zenbat urte, trikitiarekin batera desagertu zen, dantza behar zelako, dantza lotua, ligatu egin behar zelako», gogoratu zuen Aizpuru.

Txistuaren balioa berreskuratzea izan liteke lan honen helburuetako bat. Bestea, harria altxatzea. Horretarako, harri jasotzailerik handienetako baten parte hartzea dute, oraingoan besorik, gorputzik erabili gabe, ordea, hitza baik. Hartara, Iñaki Perurenaren poesiek, musikari eta dantzari batuta, altxatuko dute harria, ikuskizun benetan ederra.

ESTREINALDI ARRAKASTATSUA

Larunbateko estreinaldiaren ostean GAUR8k Josu Sanchez Mulixka taldeko dantzari eta ikuskizunaren koreografiaren egilearekin hitz egin zuen. Pozik zegoen, pozik egoteko moduko erantzuna jaso baitzuten lepo betetako Gasteizko Foru Plazan. Leku hori aukeratu zuten Perurenaren lorpenak gogoratzeko, eta aurrerantzean ere leitzararren ibilbide arra-



kastatsua markatu duten plaketan egingo dituzte emanaldiak. Bestetik, iluntzean egin zuten, ikuskizunak argi efektu ugari baititu. Kaleko ikuskizuna izanda, ez zekiten nolako eguraldia egingo zuen, emanaldiak nolako harrera izango zuen, eta, zalantza guztiak uxatuta, lasaitu ederra hartuta mintzo zen Sanchez: «Dena ondo atera zen, borobila izan zen». Horrek adore handiagoa eman die udaberritik aurrera egingo dituzten emanaldiatarako, Iñaki Perurenak Josuri esan zionez, «hau Euskal Herrian zehar eramateko».

«Ez dugu istorio konkretu eta bakar bat kontatzen, baizik eta protagonista bereko istoriotxoak», azaldu zuen Sanchezek. Izan ere, Iñaki Perurenaren poesia lagun, harriarekin lotutako hainbat gertakari, lan edo kirol agertuko dira musikaren eta dantzaren bidez: harri zulatzaileak, harginak, harri jasotzaileak...

SORTZE PROZESUA

Josu Sanchezek eta Iñaki Palaciossek 2012an elkarlanean sortu zuten «Ardoaren dantza», eta ondoren «Lurra, ardoa, dantza». Aspaldiko lagunak direnez, adiskidetasun hori lanean islatzen al den galdetu diogu Sanchezzi, eta ez du luze pentsatu. Elkar ondo ezagutu eta elkarrenganako konfiantza dutela dio, eta hori emaitzan nabaritu egiten dela, «aurreko sortze lana errazten du». Nabari da musikaren eta dantza-aren arteko konplizitatea, benetan musika dantzarako eta dantza musikarako eginda daudela.

Sortze prozesuari dagokionez, Iñaki eta Josu elkartu eta ideia zaparrada batekin hasten dira. Gaiaren inguruko musikaren eta kontaketa-aren gaine-



Aurreko orrialdean, goian, «Harria» ikuskizunaren eta izen bereko diskoaren aurkezpena, eta, behean, ondoren eskaini zuten «Gertu» pieza. Orrialde honetan, ikuskizunaren estreinaldia, Gasteizko Foru Plazan. Endika PORTILLO | FOKU - Gaizka PEÑAFIEL




ko hausnarketa egiten dute, bakoitzak dagokion arloan, ondoren dena bateratzen dute eta musika eta dantza taldeekin lan egiten hasten dira.

Iñaki Palacios musikaren egileak dioenez, proiektu honetarako hemengo nortasuna islatzen duen zerbait egin nahi zuten, indar handiko izenburu batekin, eta Josu Sanchezzi harria etorri zitzaion burura. Sanchezek dioenez, Palacios eta bera tradizioetik bizi dira, txistutik eta euskal dantzatik, alegia. Beren arloetan eraberritu nahi izan dute beti, baina sustraletara joz. Eta Euskal Herriko kulturari eta beste batzuei lotuta egon den elementu baten bila harria topatu zuten berehala.

Gaia erabaki bezain laster, Iñaki Perurenarekin hitz egitera joan ziren. «Perurenari esan genionean, hausnarketa batzuk jakinarazi zizkigun, eta guztiz ados gaude berarekin». Leitzako lehen bileratik atera baino lehen, nafarraren baietza jaso zuten. Perurenaren iritzia eta aholkuak entzun eta dokumentazio lana egin ondoren, garai bateko lanbideen eta gaur egungo herri kirolen gaineko istorioak antzezteko koreografia egiteari ekin zion Sanchezek, betiere kale ikuskizuna izango zela argi izanda.

«Harria» ikuskizuna «Lurra, ardoa, dantza» lanaren estetika-aren jarraipena dela diote. «Nolabait emozioen errusiar mendia da, baina hemen abestiak eta koreografia emotiboa- goak dira, baita Perurenaren parte hartzea ere, berarentzat harria zer den eta nola sentitzen duen azalduz...». Une oro lantalde bat direla azpimarratu nahi izan du Sanchezek: «Bakoitzak badaki zer egin behar duen eta koordinazio horretatik etorri da emaitza».



Iñaki Palacios. «Harria» diskoa eskutan hartuta. Endika PORTILLO | FOKU

infraganti IÑAKI PALACIOS

Mulixka Dantza Taldearekin batera «Harria» ikuskizuna sortu du Iñaki Palacios musikari gasteiztarrak. «Harria» estreinatu eta izen bereko diskoa argitaratu berritan hitz egin dugu berarekin bere diskoaz, bere ofizio eta afizioaz, txistuaz, alegia. Txistuak merezi duen lekua hartzeko egiten duen ahaleginaz ere aritu gara.

Txistularia. Musikaria. Baxua eta gitarra elektrikoa ere jotzen ditu, baina txistularia da oroz gain Iñaki Palacios. Edo abeslaria. Dioenez, ordea, abeslari txarra, horregatik abesten du txistuaren bidez, hau da, letrarik gabeko abestiak. Txistuak dena eman diola dio eta, bospasei urterekin gurasoek Gas-

teizko Musika Etxean bere ize-na eman zutenetik, horixe du tresna kutuna. Bete-beteen asmatu zuten Iñakiren gurasoek. Ondoren, dantza ere egiten hasi zen, baina musika, txistua zen Iñakiren benetako bokazioa, eta gainera nabari zen horretarako erraztasuna zuela. Ikasi eta trebatzen joan zen eta 2004an, 15 urte zituela, Hernanin izan zen Euskal Herriko Txistu Txapelketara aurkeztu

zen. Zehatzago, «aurkeztu ninduten», diosku GARako erre-dakzioan. Eta behin aurkeztuta, irabazi egin zuen.

HARRIA

Pozik dago Iñaki Mulixka Dantza Taldearekin eta Iñaki Perurenarekin batera aurrera atera duen azken proiektuaren emaitza ikusita. Joan den larunbatean aurkeztu zuten “Harria” ikuskizuna Gasteizko Foru Plaza mukuru betean. Bi egun lehenago argitara atera zen izen bereko diskoa, Perurenaren hitzak eta ikuskizuneko abestiak biltzen dituenena. «Ez dira pop abestiak, ez rock abestiak, baina horietatik gauzak hartu eta diskoan sartu ditugu publiko orokorrari hurbiltzeko».

Izan ere, Ritxi Aizpuru Baga-Biga diskoetxeko koordinatzaileak diskoaren eta ikuskizunaren aurkezpenean esandako hitzak gogorazita, alegia txistua noizbait baztertuta geratu zela, baietz dio Iñakik, eta horregatik nahi du tresna hori jendeari hurbiltzea, batez ere gazteak animatzeko. Ez dela kalerako tresna soilik ikus dezaten, ez dela tresna karrankari bat, ezta baizik, trikitiarekin eta gitarrarekin batera jo daitekeena. Gaur egungo tresna ere badela ikus dezaten, gaurko doinuak eta gaurko musika taldeetan jotzeko modukoa.

Beraz, hurbilketa horretarako, Euskal Herrian sustraitutako doinuei pop eta rock musikaren ukituak ematen saiatu da. «Abestiak aztertuta, badiutuzte musika horiekin, oso oraingo musikarekin, lotura duten akorde nabarmenak, patroi oso erritmikoak. Euskal Herriko kulturaren oso sustraituta ko doinuak dira, fandangoa, arin-arina, kalejira... baina oraingo garaietara ekarriak, gitarra elektrikoak, samplerrak,

harrizko txalapartak erabiliz». Izan ere, horrekin guztiarekin sonoritate hobea lortu eta entzulearentzat erakargarriagoa egiten du musika.

Ez da gauzatu duen gisa bereko lehenengo proiektua, duela bi urte, halaber Mulixka Dantza Taldearekin, “Lurra, ardoa, dantza” ikuskizuna eta diskoa egin baitzituen. Ikuskizunean Juanjo Monago aktore gasteiztarrak ere parte hartu zuen, ardogile baten papera egin eta ardoaren inguruko istorioak kontatuz. Ikuskizun hura zenbait urte lehenago egin zuten “Ardoaren dantza” ikuskizun laburretik abiatu zuten, haren arrakasta ikusita. Gogoan du Iñakik bideo «kaskar» bat egin zutela, «plano finkokoa, kamera bakar batekin». Hala ere, sare sozialetan 60.000 bisita inguru jaso zituen hamabost egunean. Harrezkero, urtero jotatzen dute antzezpen hori Mahats Bilketaren Festan. Lan guztion koreografiak Josu Sanchez Mulixka Dantza Taldeko dantzariak eginak dira. Beraz, aspaldikoa da Josuren eta Iñakiren arteko lankidetzak. «Lagunak gara», dio Iñakik, harro.

“Harria” lanak, aurrekoaren aldean, elementu gehiago ditu. Abesti guztietan trikitia sartu du, soinu borobilagoa lortzeko, eta, gehienetan, funtsezko zutoin gisa, harrizko txalaparta. Zail samar izan dela dio Iñakik harrizko txalaparta eta txistua batzea; izan ere, «oso tresna tradizionalak dira, biek ere harmoniko asko dituzte. Gu denon eta Mecca estudioaren lana izan da. Denbora asko eman dugu Oiarzunen soinua eta tresnak zaintzen, gitarra bakoitzean zein efektu eman, zein txistuan...». Oro har, jendeari begira, aurreko diskoa baino soinu erakargarriagoa duela us-te du. «Txistua txirula ezti bat da, nahiz eta jendeak txistua-



Iñaki Palacios eta beste zenbait musikari, «Harria» ikuskizunaren estreinaldian. Gaizka PEÑAFIEL

ren beste kontzeptu bat duen; soinu gozoa da, eta, musikari handien laguntzarekin, diskoaren soinua askoz hobea da. Txistua berriro lehen planoan agertzen da».

IRAKASLE

Honaino iristeko, urteetako prestakuntza zorrotza behar izan du; izan ere, argi zuen musikari profesionala izan nahi zuela. Bere afizioak ofizio ere izan behar zuela Hartara, Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatoriora sartzeko probak egin eta gainditu zituen. Denbora laburrean eguneroko ordu erdiko saioak bost ordukoak ziren. «Musika tresna bat serio ikaste-ko, hala behar da», dio. Lauzpa-bost ordu egunero, «etengabe, astebetez besterik ez bada ere utziz gero, nabaritu egiten bai-

ta». Lagun kuadrillarekin parrandaxoren bat egiten zuenean ere igartzen zuen, berak eta irakasleak. «Egiten nituen, bai, baina dezente kontrolatuta», dio irribarrez.

Aldi berean baxua eta gitarra elektrikoa jotzen ikasi zuen, bere kabuz, Luis Aranburu Musika Eskolan edo irakasle partikularrekin, «ez hain modu zorrotzean, baina». Tarteka, astia duenean, gitarra jotzen du etxean.

Kontserbatorioan bost urteko ikasketak amaitu zituenean, as-

Euskal Herrian sustraitutako doinuei pop eta rock musikaren ukituak ematen saiatu da.

«Badituzte musika horiekin lotura duten akorde nabarmenak, patroio oso erritmikoak»

«Txistua txirula ezti bat da, jendeak haren beste kontzeptu bat duen arren; eta, musikari handien laguntzarekin, diskoaren soinua askoz hobea da. Txistua berriro lehen planoan agertzen da»

palditik buruan zuen bezala, «zerbait gehiago» egiteko aukera izan zuen. Bartzelonako SAE nazioarteko institutura jo zuen,

txistua aldean, han eza-gutu ere egiten ez zuten tresna. Teknologia berriak musika konposizioan nola erabili ikasi zuen Katalunian.

Urte eta erdi eman zuen Bartzelonan eta 2012an,

handik itzuli baino hilabete lehenago, Basauriko Musika Eskolan irakasle hasteko proposamena egin zioten. Han hasi eta hantxe jarraitzen du gaur egun.

«Umeekin hasierako lana ez da oso teknikoa izaten», azaldu du, «musika tresnak erakustean, haurrek gitarrari nola begiratzten dioten ikusten duzu; berehala hartu eta jotzen hasten dira. Txistua tokatzean, berriz, 'baina hau zer da?' esaten dute». Onartu duenez, gero eta zailagoa da umeek txistua aukeratzea alboan gitarra elektrikoa edukita, «hori baita telebistan ikusten dutena». Eskolara iristean, zer abesti duten gustuko galdetzen die Iñakik, eta esandakoa txistuz jotzeko prestatu, harmonizazio bat egin, grabatu eta umeekin jotzen du. «Lehengoaan batek [“Operación Triunfo” TVEko saioan parte hartu zuen] Aitanaren azkena eskatu zidan; beste batek, Izaroren ‘Errefuxiatuena’. Ni saiatzen naiz eurak gustura egon daitezen, kalejira, fandango eta arin-arinarekin hasten bagara, nekatu egiten baitira».

TXISTUARI BIGARREN AUKERA

Musikagileren batek esan zuenez, txistua ganbera musikaren eta kale musikaren arteko tresna da, eta bat dator Iñaki. «Ganbera musika ez dakit entzungo duten nire ikasleek, baina bai, hor txistua egon daiteke, eta baita gitarra batekin, bateria batekin, sampler batekin... ere», azaldu du. Ideia bat dabilkio aspalditik buruan: «txistuari bigarren aukera bat ematea». Bere benetako balioa erakustea. «Gure emanaldien ondoren jende askok esan digu ez zekiela txistuak horrelako soinua atera zezakeenik».

Patxadaz hitz egin dugu, baina denborak ez digu jaramonik egin. Iñakik Basaurira joan behar du, egunero bezala, eskolak ematera, afizioa eta ofizioa duen txistuari behar duen tor-nua ematen tematuta. •

Xabier Izaga Gonzalez



Edurne Larraza Mendiluze

UPV/ EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Profil-argazkia

Gizarte sareak edo sare sozialak grafo bat edo gehiagoren bidez irudikatu dai-

tezkeen gizarte egiturak dira Wikipediaren definizioaren arabera. Sare horien azterketak garrantzi handia dauka gizarte zientzietan. Horrela lortzen da jakitea nola eta zergatik sortzen diren sare batzuk eta zer-nolako ondorioak izan ditzaketen, esate baterako, gaixotasun baten hedapenean.

Gizarte sareen mundu horretan oso ezaguna da “sei graduko jauzia” deritzona, ingelesez *six degrees of separation*. Teoria hori Frigyes Karinthy idazle hungariarrak proposatu zuen 1930ean idatzi zuen ipuin batean. Harrezkero, munduko bi gizaki, edozein, gehienez ere tarteko beste sei gizakiren bidez elkar-konektatu daitezkeela dioen teoria frogatzeko hainbat saiakera egin dira. 2011n Facebookek bere erabiltzaile guztien (721 milioi garai hartan) harremanak aztertu zituen. Ondorioa harrigarria izan zen, izan ere, azterketa horren emaitzak zioen kasuen %99,6an tarteko bost pertsona nahikoa zirela bi pertsona elkar konektatzeko, eta, kasuen %92an, tarteko lau pertsonarekin nahikoa zela konexioa egiteko. Hau da, batez beste, 4,74 pertsona. Beraz, zure lagun baten lagun baten lagun baten lagun baten bidez munduko edozein pertsonarekin jar zaitezke harremanetan.

Edozein! Eta edozeinekin ulertu behar dugu kontaktatu nahi duzun pertsona bat izan daitekeela, baina baita kontaktatu nahi ez duzun norbait ere! Bai, 7.500 milioi biztanle inguru daude munduan eta horietako edozein izan daiteke zure lagunaren lagunaren lagunaren lagunaren laguna. 7.500 milioi biztanle horietatik 2.400 milioi inguru Facebookeko erabiltzaileak dira, 1.500 milioi inguru Whatsappeko erabiltzaileak eta 1.000 milioi inguru Instagrameko erabiltzaileak. Sareok urruti ditugun pertsona maitatuak gertuago sentitzen laguntzen digute. Haiekin momentu gozoak konpartitu ditzakegu oso modu errazean argazkien eta bideoen bidez. Gertatzen dena da, ongi kudeatu ezean, ez direla haiek



Lau urratsetan edozeinen eskuetara irits daiteke zure profil-argazkia.

bakarrrik izango argazki eta bideo horietara iristeko aukera izango dutenak. Askotan gure lagunaren lagunek ere ikusi ahal izango dituzte, eta, gure lagunaren lagunek “gustuko” badituzte, haien lagunekin konpartitu ahal izango dituzte, eta, horrela, segundo gutxi batzuetan, gure argazkiak mundu osoan zehar barreiatu egon ahal izango dira.

Baina horretaz asko hitz egiten da eta ez da zehazki ni gaurkoan hona ekarri nauen. Hemen baldin bainago, gehienbat, profil-argazkiengatik da. Izan ere, profil-argazkia kasu gehienetan publikoa da. Delako gizarte sareko gure txokoan jartzen duguna zeinek ikus dezakeen konfiguratu daite-

ke, baina profil-argazkia erabat publikoa da. Ni ez naiz Facebookeko erabiltzailea, baina, Interneteko bilatzaile batean “Facebook” eta “izen bat” jartzen badituzte, izen horrekin dauden erabiltzaileen zerrenda agertzen zait bakoitzaren profil-argazkia erakutsita. Whatsappen, berriz, nire kontaktu guztien profil-argazkia ikus dezaket. Whatsappeko nire kontaktu asko lagun eta familiartekoak dira, baina beste asko ez ditut apenas ezagutzen. Agian haien dendan zerbait erosi dut noizbait eta Whatsapp bidez abisatu didate iritsi dela, edo nonbaitetik kontaktatu naute laneko proiektuez hitz egiteko, edo... Tira, kontua da, pertsona horien profil-argazkia ere ikus dezakedala. Eta ikaragarria iruditzen zait zenbatek erabiltzen duten profil-argazki gisa haien seme-alaben argazkia.

Gaztetxoei esaten diegu arretaz zaintzeko zer argitaratzen duten sarean. Bada, guraso edo legezko tutoreei dagokigu gure seme-alaben ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea eta beraren irudia zaintzeko eskubidea. Eskubide garrantzitsua da esku artean daukagun hori eta ongi zaintzea dagokigu. Profil-argazki batek norbait identifikatu behar du, ez norbait horren inguruko beste inor, bere munduko pertsonarik garrantzitsuena bada ere. Izan ere, ez ahaztu lau urrats baino ez direla behar informazio hori munduko edozein pertsonaren eskuetara irits dadin. Teoria hutsa izan daiteke, baina gure seme-alaben irudia dugu jokoan. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JAIME BASTERRETCHÉ

SOFIA LOREN ETA RICHARD BURTON, ZINEMALDIAN

1974ko irailaren 14tik 25era bitartean egin zen Zinemaldiaren 22. edizioa. Inaugurazio galan Italiako neorrealismoaren ordezkari aipagarrienetako baten film bat eman zuten, Vittorio de Sica zuzendariarena, hain zuzen. "Il Viaggio" zen film hori eta bertako protagonistak Richard Burton eta Sofia Loren ziren, Carlo Ponti ekoizle eta Sofia Lorenen senarrak lagunduta joan zirenak galara. Garaiko hedabideek bai Hondarribiko aireportura bai Gipuzkoako hiriburuko Maria Cristina hotelera iristean izan zuten harreraren berri eman zuten. Artikulua ilustratzen duen irudiak bi aktoreak, Richard Burton eta Sofia Loren, irailaren 14an Victoria Eugenia antzokian egindako emanaldira heldu zirenean jaso zuten. Argazkia Jaime Basterretche argazkilari ziburutarrek egin zuen. Basterretchek "Sud Ouest" eta "La Voz de España" kazetentzat, Europa Press agentziarentzat eta "Unidad" arratsaldeko egunkariarentzat lan egin zuen, besteak beste.

HACEMOS BILBAO OPERA BILBAO OPERA EGITEN DUGU

2019/2020
68 TEMPORADA DE ÓPERA
OPERA DENBORALDIA
#YoSoyABAO

Gaetano Donizetti

LUCIA DI LAMMERMOOR

octubre/urriak'19
19, 21, 25, 28

OPERA BERRI

octubre/urriak'19
26



TUTTO VERDI

Giuseppe Verdi

JÉRUSALEM

noviembre/azaroak'19
16, 19, 22, 25



Richard Wagner

DER FLIEGENDE HOLLÄNDER

enero/urtarrilak'20
18, 21, 24, 27



Fundación BBVA

Giacomo Puccini

LA FANCIULLA DEL WEST

febrero/otsailak'20
15, 18, 21, 24



Fundación BBVA

Gaetano Donizetti

ANNA BOLENA

mayo/maiatzak'20
16, 19, 22, 25



EN CONCIERTO

ROSSINI

GIOVANNA D'ARCO
STABAT MATER
abril/apirilak'20
25



Fundación BBVA

abao.org

Colabora/Laguntzailea

GARA

ABAO | BILBAO OPERA

PATROCINADOR PRINCIPAL/BABESLE NAGUSIA

Fundación
BBVA

MECENAS/MEZENAK

Euskadi, *azolatu, bien común*
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

CONSEJO DE ECONOMÍA Y EMPLEO
INAEEM

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

PATROCINADOR/BABESLEA

EL CORREO
INFORMACIÓN CON VALOR

COLABORADORES/LAGUNTZAILEAK



ASOCIADOS/BAZKIDEAK

